

Berbaz

Maria Cristina Cujuj: "Gutako askok Bateginezen programari esker egin dugu aurrera Pochutan" > 10

Tabirako Baqueko gizonen taldeak igoera fasea jokatu du asteburuan, Arrasaten

Bihar jokatu dute Tabirakok eta Mondragon Unibertsitateak lehen finalerdia. Finala, berriz, domekan izango da

Asteburuan Lehen Nazional Mailako lau talderik onenak batu-ko dira Arrasaten; tartean, Tabirako. Zapatuan, 17:00etan, Tabirakoko gizonen taldeak Mondragon Unibertsitatearen kontra jokatu du. Bigarren finalista Azpeitia-Azkoitia eta Deusto-Loio-

laren arteko partidutik irtengo da. Irabazleek domekan jokatu dute finala, 12:00etan. Mondragon da igotzeko faboritoa. Tabirakok irabazi egin zion denboraldi aurreko Baqué torneoan, baina, harrezkero, gipuzkoarren aurkako lehia guztiak galdu ditu. > 16



Argazkiak: Peio Agirre.



Hogei taldek banda ezagunen bertsioak joko dituzte Plateruenean, gaur eta maiatzaren 30ean > 11

Durangaldeko musikariak Greatest Hits Gauerako prest

Batxilergoak eta Zikloak



Biharko Beharretarako

Abasolo 6 Durango, 48200 Bizkaia.
Tel. 94 681 00 58, Fax. 94 620 06 38
www.maristak.com | san-jose@maristak.com

Ate Irekiak
Zita bat eskatu
946810058
www.maristak.com

Aurrematrikulak Zikloak
Maiatzak 27tik
Ekainak 6ra
Pcpi
Ekainak 2tik 19ra



Lanbide Heziketa Duala!

Durangaldea > 2

Hainbat ekitaldi antolatu dituzte Durangaldean, ekainaren 8ko giza katea bultzatzeko

Elorrio > 3

Presoen senideei diru-laguntza ematen jarraitzea eskatu dute

Zornotza > 4

Emakume erraketarien historia jaso dute Zelaia zentroan

Atxondo > 6

Kulturartekotasun Eguna eta Umeen Euskal Jaia asteburuan

Herririk herri

> DURANGALDEA

Ekainaren 8ko giza katea bultzatzeko ekitaldi ugari antolatu dituzte

Elorrion giza katea egingo dute, gaur, 19:00etan

> JONE GUENETXEA

Aste bi gelditzen dira ekainaren 8an erabakitze eskubidearen aldeko giza kateak Durango eta Iruñea lotzeko. Elorrion giza katea antolatu dute, gaurko, 19:00etan, egun horretara begira motorrak berotzeko. Pla-

tarrek, eskutik oratuta. Antolatzailleek kamiseta jantzita joateko deia egin dute. Ekainaren 8an jarraitu beharreko jarraibideak ere emango dituzte, eta metroak eta kamisetak izango dituzte salgai. Elorrion, dagoeneko 500 metro saldu dituzte. Elorriarrei Abadiñoko bosgarren kilometroan egotea dagokie, Muntzaraztik, Berriztik, Abadiñotik, Zaldibartik, Mallabitik eta Ermutik joango direnekin batera.

Bestetik, joan zen domekan egin zuten giza katea, Zornotzan. 800 lagunetik gora batu zituen erabakitze eskubidearen aldeko ekimenak. Zelaietako parkea eskutik oratuta inguratu zuten zornotzarrek. Aurreratu



Zelaieta parkea eskua emanda inguratu zuten zornotzarrek.

dute 900 metro baino gehiago saldu dituztela Zornotzan.

Durangon, ostera, 1.000 metro saldu dituzte dagoeneko. Herriko Gure Esku Dago dinamika-aren arduradunak "pozik" daude ekimenak herritarren artean izan duen harreragaz. Ostegun

eta ostiral arratsaldetan, eta zapatu eta domeka goizetan jar-zen dute postua Andra Marin. Durangoko bigarren kilometroa otxandiarrek osatuko dute.

Mañariarrek ere metroak eta kamisetak saltzen dihardute, eta 100 metro saldu dituztela

jakinarazi dute. Mañariarrek Abadiñoko hirugarren kilometroan egongo dira. Mallabian, berriz, gaur salduko dituzte metroak eta kamisetak, 19:00etatik 20:30era. Kultur hamabostaldiko ekitaldi nagusietan ere jarriko dute postua.

Europako hauteskundeak domekan erabakiko dira

Alderdi politikoek bi astetako kanpaina egin dute

> JOSEBA DERTEANO

Gaur amaituko da hamabost eguneko kanpaina Europako hauteskundeetan parte hartzen duten alderdientzat. Egun hauetan, alderdi politikoek Durangaldean ere aurkeztu dute beraien proposamena Europara begira. Joan zen astean, EA-Jko kargu gorenak, Iñigo Urkullu lehendakaria buru zutela, Ezkurdin bildu ziren. Andoni Ortuzar EBBko presidentek gogoratu zuen "enplegua eta ekonomia bultzatzea dela EAJ-ren helburua, bai Bruselan, eta baita Durangaldean ere".

Ezker Anitza-IU-Iratzari-EKlko hautagaiek ere Durangon egin zuten geldialdia. Mikel Anderez alderdiko koor-

dinatzaileak esan zuenez, "ezin bestekoa da Europatik Durangora eragin nahi duen ezkerreko indar zabal bat".

PSOEk, berriz, domekan antolatu zuen ekitaldia, Landakon, Arrosaren Egunean. "Lana eta soldata duinak aldarrikatzen ditugu gazteentzat, eta helburu horretara heltzeko konpromisoa hartzen dugu", azaldu zuen Elena Valencianok.

EH Bilduk eguaztenean, Durangon, antolatu zuen ekitaldian Dani Maeztuk eta Niko Morenok hartu zuten parte. Maezturen arabera, domekako emaitzak garrantzitsuak dira, ezkerreko abertzaleen eredua Durangaldean zabaltzen jarraitzeko.



3.000 militantetik gora bildu ziren Arrosaren Egunean, Landako Gunean.



EH Bilduk Ezkurdin antolatu zuen ekitaldia, eguaztenean.

Jesuitetakoak garaile Kerik Gabeko Gelak lehiaketan

> MARKEL ONAINDIA

Houston, arazo bat daukagu tabakoarekin. Hori izan da aurtengo Kerik Gabeko Gelak programako garaileek marrazki bat egiteko erabili duten leloa. Eusko Jaurlaritzak, Osakidetza eta Amankomunazgoak sustatutako lehiaketa Jesuitak ikastetxeko Gorka Junquerak eta Inazio Azurmendik irabazi dute. Nevers eta Abadiñoko institutukoek ere parte hartu dute.

Maiatzaren 31 Tabakoaren Kontrako Nazioarteko Eguna da, eta horren bueltan egin dute lehiaketa. 30ean, Amankomunazgo Mendeotasun zerbitzuko kideek informazio mahaia ipiniko dute Durangoko Ezkurdin, 16:00etatik 19:00etara.

Laguntzaileak:

BFA DFB

Bizkaiko Foru Aldundia
Kultura Saila

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

ABADIÑO, ATZAGA, BERRIZ, DURANGO, ELORRIO, GARA, IURRITA, LEZORTZA, MALLABIA, MAÑARIA, OTZAROA, ZALDIBAR, ZORNOTZA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

diruz lagundutakoa

anboto
komunikabideak

Zuzendaria:
Jone Guenetxea.

Administrazio burua:
Itziar Belar.

Administrazioa: Miren Abasolo eta Nagore Aranburu.

Publizitatea: Goretti Alonso, Amaia Huarte, Itxaso Altuna.

Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Joseba Derteano.

Markel Onaindia, Amaia Ugalde eta Maialen Zuazubiskar.

Maketazioa: Eider Alberdi eta Aritz Palacin.

Zuzentzaileak:
Jon Ander Urkiaga.

Argazkilariak: Kepa Aginako, Zaloa Fuertes.

Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta
(Bizkaia)

Tel.: 946 816 558
Erredakzioa:
946 232 523
Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2014ko maiatzaren 23a,
12. urtea - 546. alea

> ELORRIO

Presoen senideei diru-laguntza ematen jarraitzea eskatu dute

Etxeratek 1.420 sinadura batu ditu, udalak ez duelako laguntzarik aurreikusi



Etxerateko kideek udaletxeko aterpean eskaini zuten prentsaurrekoa.

> MARKEL ONAINDIA

Udaleko gobernu taldeak aurten ez du aurreikusi sakabanaturik dauden presoen senideak diruz laguntzerik. Egoera horren aurrean, sinadura bilketa egin du senideak batzen dituen Etxerat elkarteak. Alde batetik, sakabanaketak irauten duen bitartean diru-laguntza hori mantentzea eskatu diote udalari, eta, bestetik, sakabanaketaren kontrako jarrera aktiboa edukitzea. Batutako 1.420 sinadurak marti-

tzenean entregatu zituzten udaletxean, prentsaurrekoa eman ostean. Gaia hurrengo udalbatzarrean lantzea ere eskatu dute.

Senideek kontatu dute azken hamalau urteetan jaso dutela udalaren diru-laguntza, alderdi bat zein bestea egon agintean. "Ez du balio izan gastu guztiei aurre egiteko, baina oso lagungarria izan da".

Sakabanaketa duela 25 urte asmatu zutela gogoratu dute, eta, urteotan, presoek gainera,

bisitan joan direnek ere jasan dutela: "Ondorioak larriak izan dira, ehunka istripu eta hama-sei heriotza eragin dituelako". Horregatik guztiagatik, "salbuespen neurri" horren amaiera aldarrikatu dute, udalari eginiko eskaerekin batera.

Bestalde, elorriar bat gutxiago dago preso. Joan zen domekan geratu zen libre Txomin Lesende, hamahiru urteko kartzela zigorra bete ondoren, kale borrokan aritu izanaz akusatuta.

2015eko aurrekonturako partaidetza prozesua zelan garatu aztertuko dute

Gobernu taldeak proposamena aurkeztu die taldeei

> M.O.

2015erako udal aurrekontua herritarren parte-hartzeagaz garatu gura du gobernu taldeak, eta prozesu hori diseinatzeari ekin dio. Proposamen bat aurkeztu diete gainerako alderdiei, eta ekainaren 3ra bitartean ekarpenak egiteko aukera edukiko dute. Diseinua zehaztu eta gero, udazkenean izango litzateke partaidetza prozesua.

EAJren gobernu taldearen ideiarekin arabera, prozesuko lehenengo pausoa arlo bakoitzeko teknikarien lanketa izango da, kontu-hartzaileak ezarritako gastu muga kontuan hartuta. Ideia guztiak batu, eta gobernu taldeak zirriborro bat aurkeztuko die alderdiei. Hori onartzen denean, herritarrekin lanean hasiko dira.

Lehenengo eta behin, zirriborroa aurkeztuko dute jendarean. Gero, ekarpenak egiteko fasea garatuko dute; tailerrak antolatuko dituzte, Internet bidez inkestak egiteko aukera egongo da, eta kalean iritziak

batzeko karpak egokituko dituzte. Gainera, herriko elkarteek ekarpenak ere jasoko dituztela azaldu dute.

Hori izango da prozesua, udalean onartzen bada. Iaz, gobernu taldeak eta Bilduk partaidetza prozesu bana egin zuten, nor bere aldetik.


Diseinua zehaztu eta gero, udazkenean izango litzateke partaidetza prozesua

Gizarte zerbitzuez

Bestalde, udalak batzarrak egin ditu asteon alargunekin eta pertsona nagusiekin, Amankomunazgoak eskaintzen dituen gizarte zerbitzuen inguruko informazioa emateko. Udalak egindako azterketa baten arabera, herritarrek ez dituzte ondo ezagutzen zerbitzuak, eta horri erantzuteko batzartu dira.

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA



Ate Irekien Jardunaldia

Maiatzak 24 • 11:00

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Eskaintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrial
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrial

www.mondragon.edu/gmh

gmhz.mgep@mondragon.edu

943 73 97 65



> ZORNOTZA

Emakume erraketarien historia jaso dute Zelaieta zentroko erakusketan

Emakumeen Osasunaren Aldeko Nazioarteko Egunaren harira antolatu dute



Andoni Agirrebeitia, Itxaso Iriondo eta David Latxaga erakusketan, erraketarien sasoiko jantzien artean.

> JOSEBA DERTEANO

Emakumeen Osasunaren Aldeko Nazioarteko Eguna izango da maiatzaren 28an, eta egun horren harira hainbat ekintza prestatu dute udaletik; tartean, XX. mendean emakume erraketariek izan zuten gorakada eta gainbehera azaltzen duen multimedia erakusketa.

Emakumea eta euskal pilota izeneko erakusketa gaur hasi, eta ekainaren 1era arte egongo da zabalik Zelaieta zentroan. XX. mende hasieratik 70eko hamarkada ingurura arte erraketaren munduan –eta pilotan, oro har– emakumeek izandako presentziari errepasoa ematen zaio hainbat euskarritako osagaiekin. “Zornotza herri pilotazalea

da, baina erraketarriak nor- tzu ziren eta zelako garrantzia izan zuten galdetuz gero, gehienek ez lukete jakingo erantzuten; mundu hori ezagutarazi gura dugu erakusketagaz”, azaldu du Andoni Agirrebeitia Kultura eta Kirol Saileko zinegotziak. Adibidez, kontaketa historikoa eta pilotariei buruzko informazioa batzen duten azalpen panelak; bideo lanak, sasoiko erraketarien adierazpenekin eta irudi historikoekin; erraketan jokatzeko lau jantzi; sasoiko dokumentuak; eta pilota egiteko tresna txiki bat eskaintzen dituzte euskarriek.

Egitaraua beste hiru ekin- tzak osatzen dute. Iraia García atleta zornotzarrak *Gu be bai*

runners izeneko ekimena aurkeztuko du maiatzaren 28an, 20:00etan, Zelaian. Herriko emakume batzuekin batera osatutako taldea da, eta, Gizarte Ekintza Saileko zinegotzi Itxaso Iriondoren berbetan, “kirolean aritu bitartean, espazioak eta uneak partekatzea du helburu”.

Handik egun bira, maiatzaren 30ean, 18:30ean, sexuen tri- vial jokoa prestatu dute Gaz- tetxokoa: 11 urtetik gorako neska-mutilak sexualitatearen inguruko gaiak lantzen arituko dira taldeka. Azkenik, maiatza- ren 31n, 11:00etan, martxa bi antolatu dituzte Zubiondo par- ketik abiatuta. Horrekin batera, gaztetxoei bideratutako Txikio- linpiadak ere egingo dituzte.

Gregorio Mendibil kaleko oinezkoen gunea handituko dute

Obrek iraun artean kalea itxiko diete ibilgailuei

> JONE GUENETXEA

Gregorio Mendibil kalean oinez- koentzako gunea handitzeko eta euri uren biltegia berritzeko obrei ekin diete Zornotzan. Udal arduradunek azaldu dutenez, es- paloien zabalera handitu egingo dute. Bi metroko espaloia izango dute zenbaki bakoitiko atarien aldean, eta 2,56 eta 3,96 metro bitartekoa, aldiz, atari bikoitien aldean.

Oinezkoen pasabideak ere berrantolatu egingo dituztela azaldu dute. Konbenio kalearen lotunean dagoena aurreratu egingo dute, eta San Juan kalea-

ren ondokoa, berriz, atzeratu. Era berean, oinezkoen pasabi- deak beheratu egingo dituzte, irisgarritasunaren inguruko araudia betetzeko.

Euri uren biltegia

Euri uren biltegia galtzadaren ardatzean dagoenez, lanek di- rauten artean kalea itxita egon- go da ibilgailuentzat, ezinbes- tean. Obrek irauten duten hiru hilabeteetan, Konbenio kaletik pasatu beharko dute ibilgailuek. Construcciones Morga enpre- sak egingo du obra, eta 200.000 euroko aurrekontua du.

Erakustxakurren lehiaketa bihar, Jauregibarriako zelaian

> J.D.

Zornotzako Errekamendi elkar- teak erakustxakurren lehiaketa antolatu du zaturako, Jau- regibarriako landetan. Ekime- naren laguntzaileak dira udala eta Intxausti albaitari klinika. Erakustxakurra ehiza txakur mota bat da; intuituari jarrai- tuta, muturragaz ehizarako

pieza dagoen tokia adierazten duelako deitzen zaio horrela, eta ehiztariari informazio baliotsua eskaintzen dio keinu horrekin. Arrazarik ezagunenak pointer eta setter motakoak dira, batez ere. Biharko txapelketa eta sa- riak hiru ataletan banatu dituz- te: txakur arraza kontinentalak, britainiarrak eta sozialak.

Txapelketan parte hartu gura duenak egunean bertan 08:00eta- tik 09:00etara izango du izena emateko modua, Jauregiba- rrian. Ondoren, txapelketa bera 09:00etan hasi, eta 14:00 ingu- ruan amaituko da.

> ABADIÑO

Epaiketara deitu arte libre utzi dute Eneko Zarrabeitia

Eguaztenean atera zen Zarrabeitia Soto del Realetik

> ITSASO ESTEBAN

Epaiketa egin arte findantzarik barik libre utzi dute Eneko Zar- rabeitia. Eguazten iluntzean askatu zuten Madrilgo Soto del Real kartzelatik, eta zain zeuzkan familiartekoekin eta lagunekin batera egin zuen etxe-

rako bidea. Pablo Ruiz Auzitegi Nazonaleko epaileak zabalik mantenduko du Eneko Zarra- beitiaren sumarioa. Espainiako justiziak leporatzen dizkion kar- guen ikerketagaz aurrera jarrai- tuko dute, beraz. Baina epaiketa egin bitartean libre egongo da.

Euroagindua gauzatu eta Espainiaratu egin zuten Eneko Zarrabeitia abadiñarra joan zen astean. Madrilgo Soto del Real kartzelan espetxeratuta eman ditu azken egunak Espainiako Auzitegi Nazionalaren aginduz, Frantziako justiziak ezarritako zigorra osorik bete eta gero.

Eneko Zarrabeitiari ETako kide izatea eta “helburu terro- ristekin” armak eta lehergai- luak garraiatzea leporatu zioten 2008. urtean atxilotu zutenean, eta Frantziako lau kartzelatan bete du zazpi urteko zigorra.

Pilotakadaz Pilotakada txapelketako finalak, bihar

> I.E.

Bihar, maiatzaren 24an, 19:30ean, San Trokaz jaietan jokatu- ko dituzte sakabanaketa salatzeko antolaturiko Pilota- kadaz Pilotakada pilota txapel- ketako finalak. Frontenis mara- toiaren ostean izango dira final biak: Tinok eta Hibaik osaturiko

bikotea Azkarraga eta Inhar- en kontra ariko da palaz, eta Azka- rraga eta Lasuen bikotea Atxa eta Urrutiaren kontra eskuz.

“Pilotalekuan jendetza bil- tzea” da txapelketaren antola- tzaileen helburua, “bai pilota- riak animatzeko, eta baita eus- kal preso eta iheslari guztiekiko elkartasuna adierazteko ere”. Izan ere, “euskal preso politi- koek pairatzen duten sakabana- ketaren salaketa Euskal Herri- ko pilotalekuek zabaltea” da hainbat herritan antolatu duten ekimen honen helburua.

a-

Gune paregabe guztiek dute aurrekontu bat, eta aurrekontu guztiek dute gune paregabe bat.

Ibaizabal, 3A - Durango - www.a-metz.com - 946 818 481

MATERIAL DE CONSTRUCCION MACOBER

ERAIKUNTZARAKO MATERIALA

BILTEGIA ETA ERAKUSTOKIA
Eitua industriagunea, 66
Tel./Faxa: 946 827 890
48240 Berriz (Bizkaia)
macober@movistar.es

Zeramika eta gresa



INSTITUTO ESPECÍFICO
DE FORMACIÓN PROFESIONAL
SUPERIOR
ZORNOTZA
GOI-MAILAKO LANBIDE
HEZIKETAKO BERARIAZKO
INSTITUTUA

Lanerako Langile Trebatuak

**ZIKLO GUZTIAK
EUSKERAZ ETA GAZTELERAZ**

ESKAINTZA OSOA

GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Metal-Eraikuntzak
- Web Aplikazioen Garapena
- Mekatronika Industrialak

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Merkataritza Jarduerak
- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Mantentze-lan Elektromekanikoa
- Soldadura eta Galdaragintza
- Mikroinformatika-sistemak eta Sareak

ESKAINTZA PARTZIALA

- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Soldadura eta Galdaragintza

SARBIDE-PROBARAKO PRESTAKUNTZA

- Goi maila: zati orokorra

ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA

- Etengabeko prestakuntza (Hobetuz)
- Langabetuentzako prestakuntza (Lanbide Ikastaroak)

DATAK

Aurrematrikula
maiatzaren 27tik
ekainaren 6ra

Matrikula
uztailaren 9tik 16ra

Tel: 94 673 02 51
e-mail: info@fpzornotza.com
www.fpzornotza.com



> ATXONDO

‘Casteller’ talde batek erakustaldia eskainiko du Kulturartekotasun Egunean

Umeen Euskal Jaia ere ospatuko dute domekan

> JOSEBA DERTEANO

Askotariko kulturen erakusle-
leiho eta topagune izateko hel-
buruz, Kulturartekotasun Egu-
naren hirugarren aldia antolatu
dute astebururako. Askotariko
ekintzen barruan, Bartzelonako
Castellers del Poble Sec taldeak
castell erakustaldia eskainiko
du plazan, bihar, 17:00etatik aurrera.

Kulturarteko Batzordearen,
eta herriko hainbat elkarteren
eta eragileren lanari esker an-
tolatu dute Kulturartekotasun
Eguna. Lehenengo ekintza gaur
izango da. 18:00etatik aurrera,
Munduko ipuinak izeneko ipuin
kontalari saioa antolatu dute
gaztetxean.

Ekimenik gehienak bihar-
ko prestatu dituzte. 11:00etatik
aurrera, umeentzako ekintzak
egongo dira plazan. Munduko
kultura askotako jolasak esku-
ratu dituzte, eta gaztetxoei ho-
riekin jolasteko aukera emango
diete. Jolas horietako batzuk
Alboan Gobernu Kanpoko Era-
kundearen bidez lortu dituzte.

Ondoren, 12:00 inguruan,
ongiotorri ekitaldia egingo dio-
te *castellers* taldeari, dantzek
eta musikak girotuta. Ordu
horretan, munduko janari-
dastaketa egiteko aukera ere
egongo da udaletxeko arkupean.
Urtero-urtero herrian bizi diren
jatorri askotako lagunek euren
herrialdearen erakusgarri di-
ren platerak prestatu, eta das-
tagai ipintzen dituzte. Horrela,
hainbat herrialdetako kultura
gastronomikoa ezagutzeko eta
probatzeko aukera eskaintzen
dute. Euskal Herrian ohikoak
ez diren plater horiek dastatzeko
txartelak erosi beharko dira;
txartel bakoitzak euro bat balio
du. Ondoren, txartel horiek era-
biliko dira janari-
dastaketa egin ahal izateko.

Bazkalostean, 17:00etan, Cas-
tellers del Poble Sec taldearen
giza dorreak ikusteko aukera
egongo da plazan. Toki berean
sabel dantza saioa eskainiko du
Saray Al-jalilak.

Kulturartekotasun Egu-
na musikagaz agurtuko dute.



Hainbat herrialdetako gastronomia probatzeko aukera egongo da.

22:30etik aurrera, Atxondoko
eta Elorrioko musikariek osa-
tzen duten Ghetto taldeak kon-
tzertua eskainiko du gaztetxean.

Bestalde, hainbat herritar-
ren artean garatutako ekimen
bat ere izango da bihar. *Yarn
bombing* izeneko artegintza
erabilia, pilotalekuko aterpean
dagoen zutabe bat kolorez jan-
tziko dute. Eguaztenean elkartu
ziren hainbat atxondar gurutz-
puntuaren eta kakorraz-lanen
bitartez artilea landu, eta, denen

piezak batuta, oihal koloretsu
eta apaingarri bat sortzeko.

Umeen Euskal Jaia

Andasto dantza taldeak Duran-
galdeko 300 dantzari gazte bildu-
ko ditu Atxondoko Umeen Eus-
kal Jaian, etzi. Goizeko 11:00etan
castellers sak arituko dira, eta
12:00etan kalejira irtengo da,
herriko kaleetan zehar. 13:30ean
umeak bazkaltzera joango dira.
Arratsaldeko 17:00etan, berriz,
alardean bilduko dira.

> GARAI

Diru-laguntza eskatu du udalak pilotalekuko argiak aldatzeko

> MARKEL ONAINDIA

Herriko pilotalekuko argiak
aldatuko ditu udalak, aurtengo
aurrekontuetan zehaztu lez.
Foku zaharrak kendu, eta LED
sistemakoak ipiniko ditu. Kon-
tsumo baxuko argiak dira ho-
riek; beraz, gerora argindarra
eta dirua aurreztu ahaliko du
udalak. Horretaz gainera, San
Miguel elizako dorreko fokuak
ere aldatuko ditu Garaiko Uda-
lak. Guztira, 30.700 euroko au-
rrekontua dauka egitasmoak,
eta udalak diru-laguntza eskatu
du gastuari aurre egiten lagun-
tzeko. Agenda 21eko laguntzen
baitan egin du eskaera.

Kontsumo baxuko argiak
dira LEDak; beraz, gerora
argindarra eta dirua
aurreztu ahal izango da

Argiteria aldatzea da aurre-
kontuetako inbertsio handie-
netakoa, ur-sarea hobetzeko
proiektuagaz batera.



KULTURARTEKOTASUN ATXONDOKO III. EGUNA

Maiatzak 23

18.00etan gaztetxean:
ipuin kontalaria "*Munduko ipuinak*"
Enaitz ipuin kontalariaren eskutik

Maiatzak 24

11.00etan Umeentzako ekintzak plazan
12.00etan Herrerakataluniarreri ondoren
Munduko janari-
dastaketa
Castellers del poble sec
eta Sabel dantza
22.30ean Kontzertua gaztetxean
GHETTO

ANTOLATZAILEAK: ATXONDOKO
KULTURARTEKOTASUN
BATZORDEA

ATXONDOKO
UDALA

ATXONDOKO UMEEN EUSKAL JAIA 2014ko maiatzaren 25ean

11:00 - CASTELLERS DEL POBLE SEC

12:00 - KALEJIRA HERRIKO KALEETATIK

13:30 - UMEAK BAZKALTZERA

17:00 - ALARDEA (ZIARRETA AUZOAN)

*EURIA EGITEN BADU, FRONTOIAN IZANGO DA

ANTOLATZAILEA
andasto
dantza taldea

LAGUNTZAILEA
ATXONDO

> DURANGO

Terrazen araudia betetzen dela argitu gura izan du Dendak Baik

Dendak Bairen arabera, araudia betetzen ez dutenak ez dira elkartekoak

> MARKEL ONAINDIA

Duela aste bi DAZ (Durangoko Alde Zaharra) auzo elkartek hainbat kexa publiko egin zituen prentsurreko batean, eta horietako bat hainbat tabernen terrazak arauditik kanpo zeudela zen. Dendak Bai elkartek kexaren aurrean erantzuna eman du, elkarteko tabernek araudia betetzen dutela argitu guran. Esan du tamainaren muga pasatzen dutenak ez direla elkartekoak.

Merkatariek esan dute araudiz kanpoko kasu batzuk badaudela, baina ezin dela orokortu.

“Ezarritako mugak gainditzen dituzten Alde Zaharreko terrazak bi baino ez dira, eta Dendak Bai elkartetik kanpo daude”. Elkartekoek araudia “zorrotz” betetzen dutela azaldu dute.

Iturria mugitzeaz

Bestalde, terraza bat handitzeagatik Andra Mariko iturria metro batzuk mugitzeak ere kritikak izan ditu. Baina Dendak Baik nabarmendu du terrazaren legeak baimentzen duela aldaketa hori, eta uste du onerako dela, gainera. Obra tabernaren jabeak ordainduko duela ere

gogoratu du: “Araututa dagoen aukera bat da, ideia ona da, eta enpresariak ordainduko du”.

Erantzun horiekin gutun bat bidaliko diete DAZekoei, eta elkarlanean aritzeko prestutasuna erakutsiko dietela gaineratu dute.

Merkatariek esan dute araudiz kanpoko kasu batzuk badaudela, baina ezin dela orokortu

Jatetxe txinatar batek su hartu zuen astelehenean

> M.O.

Astelehen iluntzean, 20:45 aldera, su hartu zuen Alluitz kaleko Panda jatetxe txinatarrak. Suak indar handia hartu zuen, baina barruan zeudenek garaiz irtetea lortu zuten. Ke ugari sortu zuen suteak, eta etxe blokearen patiotik ere igo zen. Arriskuaren ondorioz, bizilagunak etxeetatik atera zituen Ertzaintzak. Anbulantzia bat ere bertaratu zen, eta kea arnasteagatik lagun batzuk artatu zituzten momentuan bertan. Gauerako bueltatu ahal izan zuten etxeetara, baina argindarrik barik. Etxeetan ez zuen kalte handirik eragin; kearen zikina eta usaina, batez ere. Baina, badaezpada, bizilagun batzuek senideen etxeetan edo hoteletan pasatu zuten gaua.

Sutearen ostean, Aitziber Irigoras alkatea eta Mari Jose Balier alkateordea hurreratu ziren jatetxera, kalteak ikusi, eta egoera ezagutzeko. Suhiltzaileek sua amatatzen lan egin arren, jatetxean kalte handiak eduki dituzte.

Kea inguruetan zabaldu zen, baita Iurretan ere, eta herritar askok arreta handiz jarraitu zuten gertakaria.

Odol analisisien emaitzak gaztelaniaz baino ez dituzte ematen

> M.O.

Osakidetza odol analisisien emaitzak gaztelania hutsean ematen dituela-eta, zerbitzu hori euskaraz ematea eskatzeko kanpaina bat ipini dute martxan mediku batzuek. 2013ko irailean salaketa publikoa egin zuten 40 bat sendagilek, eta horietako batzuk kontsultategira doazen herritarrek informatzen hasi dira orain. Durangoko Landakoko anbulatorioan oharrak banatzen dabilta, esaterako.

Legez, herritarrek analisisien emaitzak hizkuntza bietan edo euskara hutsean jasotzeko aukera daukatela azaltzen dute banatzen dabilzan oharrean. Baina, “zoritzarrez”, gaztelania hutsean daudela, eta horrek legea urratzen duela azaldu dute ekimenaren sustatzaileek. Osakidetza ez bezala, Mutuialiak arazorik barik euskaraz ematen dituela nabarmendu dute.

Elkargoak ere bai

Adierazi dutenez, Bizkaiko Sendagileen Elkargoak ere eskaera bera egin zion Osakidetzari. Momentuz ez da aldaketarik egon, eta, horregatik, herritarrek informatu gura izan dituzte.



Andra Mariko iturria lekuz aldatu dute, terraza moldatzeko.



> ZALDIBAR

Zaborren kudeaketari buruz “argi berba egiteko” eskatu diote Bilduri

Oposizioiko alderdietako bost ordezkariak agerraldia egin zuten joan zen astean

> ITSASO ESTEBAN

Apurtzen diren lurpeko zaborrontziak konpondu beharrean, gainazaleko zaborrontziak ipintzeko Bilduren erabakia kriti-

katu zuten Zaldibarko EAJ, PSE eta PP alderdietako bost zinegotziek, joan zen egueneko prentsaurrekoan. Apurturiko Iturrioz kaleko lurpeko zaborron-

tzi bi itxi dituzte azken asteetan, eta lurrazaleko zaborrontziak ipini dituzte lurpekoen ordeiz. Oposizioiko kideek adierazi zuten zentzugabea iruditzen zaiela gobernuaren erabaki hori, eta horrela adierazi diotela hainbat batzordetan. Era berean, gai honekiko daukan jarreraren inguruan hausnartu dezala eskatu diote udal gobernuari.

Herriarrek Bilduk zaborren kudeaketaren gaian dauzkan asmoak zeintzuk diren ez dakitela kritikatu zuten oposizioiko zinegotziek, eta dauzkan asmoen inguruan “argi berba egiteko” eskatu zioten udal gobernuari: “Azaldu dezatela euren asmoa Zaldibarren atez ateko sistema ezartzea ote den”, esan zuten EAJko Nerea Garitagoitiak.

Gogoeta egin dezala eskatu dio oposizioak Bilduri. Gober-

nuak horrelakorik egin ezean, PSEko Javier Terak aurreratu zuen ekimenen bat abiatuko dutela erabaki horren kontra: “sinadura bilketa bat, esaterako”

Udal gobernuak otsailean azaldu zuen lurpeko zaborrontzien mantentze lanak udalarentzat gehiegizko gastua dakarrela, eta horregatik hartu duela lurrazalekoak ipintzeko erabakia. Atzo, aldiz, oharra bidali zuen Bilduk, oposizioari erantzunez.

Gobernuaren erantzuna

“Parte-hartzearen eta informazioaren aldeko apustu garbia egiten dugu”, azpimarratu du Bilduk, “beraz, zabor sistema aldatzen bada, zaldibartarrek horrela erabakitzen dutelako izango da”. Oposizioaren joan zen asteko prentsaurrekoa “udal hauteskundeetarako estrategia argia da”, kritikatu du Bilduk: “Zaldibartarrak nahastu nahian dabilta, Bilduk ez baitu esan atez atekoa ezarriko duenik. Eskolak boikoteatzeko egin zuten apustua galdu dute, eta udal gobernuak kritikatzeko beste aitzakia bat nahi dute”.

> MAÑARIA

Hirugarren urtez segidan, aurten ere auzolanak egingo dituzte

> M.O.

Aurten ere auzolanak egingo dituzte Mañarian, udalak sustatuta. Aurreko urte bietako ekimenari jarraipena emanda, hirugarren edizioa izango da dagoeneko. Maiatzaren 31n eta ekainaren 7an elkartuko dira auzoetarako bideak garbitzeko asmoagaz. Baina aurretik guztia antolatzeko batzarra egingo dute. Hilaren 30ean –hurrengo barikua– izango da batzarra, 19:00etan, udaletxeko aretoan.

Orain arteko auzolanetan 50 bat lagun batu izan direla azaldu du Endika Jaio alkateak, eta aurten ere kopuru horren bultzatan ibiltzea espero dute. “Herria kohesionatzea, jendea erlazionatzea eta herritarren inplikazioa sustatzea” dira auzolanaren helburu nagusiak, alkatearen arabera.



Joan zen egunean egin zuten oposizioiko alderdiek prentsaurrekoa.

> MALLABIA

Erdi Aroko Mallabiari buruz berba egingo du Belen Bengoetxea historialariak

Bengoetxearen hitzaldia kultur hamabostaldiaren egitarauaren barruan antolatu dute, eguaztenerako

> JONE GUENETXEA

Asteburuan ekingo diote Mallabian kultur hamabostaldiaren egitarauari. Bihar, eskolako pilotalekuan, futboleko arituko dira benjamin mailako gazteak, goizez eta arratsalde. Domekarako, areto-futbol txiki txapelketa antolatu dute, 5 eta 6 urte arteko umeentzat, goizean, eskolako pilotalekuan.

Datorren eguaztenean, berriaz, *Mallabia Erdi Aroan* berbaldea eskainiko du Belen Bengoetxea arkeologo eta historialari durangarrak, kultur etxean, 19:00etan.

Datorren egunean, Biharko Izarrak Txapelketako finalau-

rrekoak jokatu dituzte udal pilotalekuan, 21:15ean hasita.

Umeei zuzendutako ekitaldiei dagokienez, maiatzaren 30ean Irrien Lagunek Mallabia

bisitatuko dute. *Irri herri anitz!* ikuskizuna taularatuko dute arratsaldeko 18:30ean, pilotalekuan. Umeek abesteko eta dantza egiteko aukera eskainiko dute.

Bertsolaritza

Uxue Alberdi eta Ainhoa Agirreazaldegik bertsolariak *Begirada feminista* bat tailerra eskainiko dute maiatzaren 30ean, kultur etxean. Bertsolaritza genero ikuspuntutik lantzeko irizpideak planteatu dituzte bi bertsolariak.



Belen Bengoetxeak Durangoren historia ere ikertu du.

> IZURTZA

Kooperatiba bizilekuetan izena emateko aukera dago oraindik

> JOSEBA DERTEANO

Garuntza lez ezagutzen den inguruan, kooperatiba bidezko ereduaren bitartez kudeatuko den etxebizitza proiektua sustatzen dabil udala azken urteetan.

Guztira, hamalau bizileku izango ditu eraikin berriak. Izen-ematea ireki zenetik hainbat lagunek interesa erakutsi dute, baina oraindik tokia dagoela adierazi dute udal ordezkariak; proiektuaren bideragarritasuna bermatzeko toki guztiak bete gura dituzte. Orain hilabete bi izen-ematea Durangalde osora zabaltzea erabaki zuten. Kooperatiba bidezko etxebizitza proiektuari buruzko informazio osoa udaletxean jaso daiteke, astelehenetik barikura, 11:00etatik 15:00etara.

> OTXANDIO

Nagusien bizitza kalitatea helburu duen ekintza plana osatu dute

> J.D.

Nagusien bizitza kalitateari lotutako askotariko eremuak –orokorrak zein herriaren errealitateari dagozkionak– aztertu ostean, Nagusi Prozesuak eman du berea. Herri-ola egitasmoaren barruan kokatzen den eremuetako bat da Nagusi Prozesua, herrigintzaren bidez bideratu dena. Urtebete baino gehiagoko lanaren edukia, ondorioak eta aurrera begirako ekintza plana txosten batean batu dituzte, eta udaleko webgunean irakurgai dago: www.otxandio.net.

Prozesuaren helburua da nagusien beharrezane herri gisa era egokian erantzutea, eta balia bide publiko, pribatu eta komunitarioak ahal den modu eraginkorrean antolatzea.

URTXINTXA
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK



Andra Maria kalea, 9 DURANGO Tel.: 946 815 017

Durangaldeko Baserritarren Elkartea



Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

> IURRETA

Arriandiko monolitoa mugitu dute, errepidetik babesteko

Azken urteotan kamioiek birritan jo dute monolitoa



Joan zen zapatuan lekualdatu zuten monolitoa.

> BERRIZ

Presoen eskubideen aldeko elkartasun asteburua

Herri bazkaria eta ibilaldia egingo dituzte 31n

> A.U.

Salgai daude maiatzaren 31n herri bazkarian jateko txartelak. Euskal presoen eskubideen alde egitaraua antolatu dute egun horretarako. Lehenengo, auzoz auzo ibildaldia egingo dute, 08:30ean irtenda. Gero, Andikoan hamaiketako eginda bueltatuko dira Olakueta plaza-
ra, bertan 15:00 aldera bazkaltzeko. Herri bazkarirako txartelak 10 euroan daude salgai Fondan eta Pedro Juan jatetxean. Bazkalaurrean, umeentzako jolasak egingo dira plazan, eta, bazka-

lostean, jai giroa: 18:00etan po-
tea hasiko dute, eta, iluntzean,
kontzertuak egongo dira gazte-
txean: The Brutal Band, Salvya

Iluntzean kontzertuak
egongo dira gaztetxean:
The Brutal Band,
Salvya eta Kraussk

eta Kraussk taldeak. Bazkarira-
ko eta kontzertuetarako txartel
bikoitza 13 euroan erosi daiteke.

> AMAIA UGALDE

Aspalditik izan du Iurretako Udalak Arriandiko monolitoa lekuz aldatzeko asmoa, “errepide nagusitik gertuegi egon dela-ko”. Gaurisa-Renault enpresaren urbanizazio lanak aprobetxatu-
ta, pareko berdegunera mugitu
zuten monolitoa, bidegurutze-
aren beste aldera, joan zen za-

Bidearen ondoan
berdegune bat atondu
dute, eta horra mugitu
dute monolitoa

patuan. Iñaki Totorikaguena
alkateak dioenez, “gure herria-
rentzat garrantzi historikoa eta
kulturala daukan monumentua
babesteaz gainera, bere zentzua
mantendu dugu, lehengo leku-
tik gertu, norabideak seinalatze-
ko duen zentzua galdu barik”.

Abortatzeko eskubidearen aldeko egitaraua

> A.U.

Berrizko Hiltegixe gaztetxeak
abortatzeko eskubidearen alde-
ko astea antolatu du datorren
asterako. Egitaraua eguaztenean
hasiko da. 19:00etan, *Gure gor-
putza, gure erabakia* hitzaldi-tai-
lerra edukiko dute gaztetxean,
Bilgune Feministaren eskutik.

Bariku iluntzean, 19:30 alde-
ra, Durangoko Batuka Feminis-
tagaz kalejira egingo dute Forje-
tatik plazara. Arratsalde osoan,
pintxoak eta musika edukiko
dituzte bertan, eta, 22:00etan, La
Furia taldeak kontzertua eskai-
niko du. Kontzertu ostean, gazte-
txean jarraituko dute jaia.

> DURANGALDEA ASTEON

10 ikasgelako eraikin berria inauguratu dute Ibaizabalen

INAUGURAZIO EKITALDIA > Ibaizabal ikastolak eraikin berria inauguratu zuen joan zen zapatuan. 1.000 metro koadro berri eraiki dituzte hamar ikasgela berri, bulegoak eta jantoki han-
diagoari lekua egiteko. Inaugurazio ekitaldia giro onean igaro
zutela azaldu du Idurre Maortua zuzendariak. Ikasleak izan
ziren ekitaldiko protagonistak. Antzerkia, musika eta elkarri-
zetak aurkeztu zituzten aro berriari gogotsu heltzeko.

Gazteei alokairua ordaintzen lagunduko die Durangoko Udalak

ETXEBIZITZA > Alokairua ordaintzeko diru-laguntza argitaratu du udalak, 18 eta 35 urte arteko gazteei zuzenduta. Eskatzaileek gutxienez urte bi eman behar dituzte Durangon erroldatuta, eta alokairuko kontratuaren titularrak izan behar dute. Ezin-
go dute etxerik jabetzan eduki, eta euren urteko soldata 21.000
euro baino txikiagoa izan beharko da. Udalaren webgunean
daude baldintza guztiak, eta diru-laguntzagaz lotutako infor-
mazio osoa. Bestalde, kirolagaz lotutako laguntza batzuk ere
argitaratu ditu webgunean.

Eroskiren otzaragaz 2.500 euro lortu ditu Geu Be elkarteak

ONGINTZA > Abadiñoko Eroskik 300 euro balio duen arrain
otzara bat eman zion Geu Be elkarteari, eta 2.500 euro lortu
dituzte horrela. Otzararen zozketarako txartelak Eroskin
bertan saldu zituzten, eta sei ordutan saldu ziren 2.500 txarte-
lak. Maria Angeles Igartuak irabazi zuen zozketa. Aniztasun
funtzionala daukaten gazteen familien elkartekoek esan dute
aurreikuspenak gainditu dituztela.

Udalak udako ekintzak San Fauston ez buzoneatzeaz kexu

KRIKA UDALARI > Durangoko San Fausto auzoko hainbat bizi-
lagunek kexa helarazi diote udalari, auzoko postontzi gehie-
netan ez dutelako udako ekintzen egitaraua utzi. “Informazio
hori jaso, eta, hala baderitzogu, parte hartzeko beste auzoetako
herritarren aukera berdinak izatea eskatzen dugu”, adiera-
zi dute auzokideek. Udalak dioenez, atea zabaltzen ez duten
etxeetan informazioa horman jarriko dute aurrerantzean.

Iritzia

Herritarrok erantzunaren zain!

Herritarrok udalagaz daukagun hartu-
man oro euskaraz izan dadin, eskaera
zehatzak bideratu genituen martxoaren
6an. Euskal Herrian Euskarazek abian
ipinitako dinamika nazionalagaz bat
eginda, Herritarren Arreta Zerbitzuan
aurkeztu genituen Durangoko dozenaka
herritarren eskaerak. Baina, hilabete bi
baino gehiago pasatu den arren, ez dugu
oraindik udalaren erantzunik jaso.

Gutun honen bitartez, batetik, egin
dugun eskaerari erantzun bat emateko
eskatu gura diogu Durangoko Udalari.
Izan ere, herritar orok legez, guk ere gure
eskaeren erantzunak jasotzeko eskubi-
dea daukagula uste dugu. Eta, bestetik,
txarto ulerturik egon ez dadin, gure
ekimenaren izaera zein den azaldu gura
dugu, labor-labor. Argi utzi gura dugu, ez
ditugula aipaturiko eskaerak aurkeztu
inongo talde politiko zein pertsonaren
kontra egiteko. Euskararen alde, euska-

raren erabilera indartzeko gabilta la-
nean. Eta udalean zein udalarenak diren
eraikin eta espazioetan (herriko kirolde-
gietan, musika eskolan, nagusien egoi-
tzan, Pinondo Etxean...) ere euskararen
erabilera bultzatu gura dugu. Prest gaude
Durango elkarlanean euskalduntzeko.

Hori horrela, erantzun bat jaso bitar-
tean, eskaera gehiago batzen eta mobi-
lizatzen jarraituko dugu. Eta, hasteko,
eskatzaile zein herrikide oro gonbidatzen
dugu egoera hau salatzeko egingo dugun
elkarretaratzea etortzera. Datorren
egunean, maiatzak 29, 19:00etan izango
da elkarretaratzea, udaletxe parean. Uda-
laren isiltasuna ozenegi entzuten da Du-
rangon. Herritarrok erantzunaren zain.
Udalak eta biok euskaraz!

Maialen Bildosola, Koldo Zarate, Aritz Bravo,
Ane Zarate, Endika Blanco
Durangoko Euskal Herrian Euskaraz

Ijorreta, herri baten desanexioa

Kereiza sasoia zan. Kereiza denboran
gagoz. Maiatzean aurrera eta zozo-biriga-
rroak eta mikak zaparroak baino bizko-
rrago frutu gozo eta inbidiagarri horren
atzetik. ...Gure herriko, Ijorretako histo-
rian atzerutz begiratu, eta hatan-horretan
25 urte pasau dira Durangotik desanexio-
netako Akordio-Erabakia Durangon sina-
tu zanetik, Ijorretako Desanexionerako
Gestora eta Durangoko Udalbatzaren ar-
tean. Ahobatez, unanimitatez. Ai zein po-
lita, zein ondo! Kereiza sasoia zan, 1989ko
maiatzaren 23a. Irribarre esanguratsuak,
besarkadak eta txanpan aparren bat be
bai. Eztegu giroa ...1970... Hamarkada
beroa. Francoren azken ostikadak, -eta os-
tiak-, eta gurean “sei kofradiak Iurretako
herria”, “Iurretako askatu”, “ItA-Iurretako
Askatasuna”, “Iurretako gure herria, Eus-
kadi gure aberria”...Paternalismoz beteta
etozen esaldioi, irribarreei eta sokatirei
be bai inoz, gure erantzun serio eta irmoa,
baina tenplez bete durangarrei, tenplau:

“Zuek zeuen mezuetan Europara goaze-
la dinoskuzue, eta, horretarako, Euskal
Herria, Euskadi bere izate propioaz, bere
identitateaz behar dogu, ez inoren men-
pean, ez Espainapean. Herri txikiagoen
identitatea onartzeko gai ez danak zelan
aldarrikatu lei, zelan eskatu lei berak si-
nesten ez dauanik? Ez dau sinisten txikia-
goari entzuteko, aztertze, emoteko gai
ez danak”...25 urte igaro dira. Gurean ez
dago zidarrik, baina bai indarrik. Bizirik
gagoz. Ijorreta gure herria, Euskadi gure
aberria. Gure aurrekoek helburu garbi
bat eukien. Sinisten eben eta zati bat lortu
be bai. ...Urtero lez, kereizak gorritzen di-
rean lez, askatasun eguzkiak gure nahiak
helduko dauz, asebeteko al ditu. Bakotxak
ahal dauentxo eginez, aurrera! Gure Es-
ku Dago! Kereiza denboran gagoz.

Antton Mari Aldekoa-Otalora, Mikel Sopelana
eta Mikel Aiartzaguena
HBko zinegotzi ohiak



astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9, 48215
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia
-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpidean
jarraituz zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1500 karaktere.
baino gehiago izan (tarteak barne).

Berbaz

Maria Cristina Cujcuj Portuguez | Administrazio exekutiboa | Pochuta, Guatemala, 1991

“Gutako askok Bateginez elkartearen programaren bidez egin dugu aurrera”

Bateginez elkarteak umeak babesean hartzeko duen proiektuaren bidez, Maria Cristina Cujcuj guatemalarraren bizitza Durangoko amabitxiaren bizitzarekin gurutzatu zen orain 20 urte; Pochutatik etorri da orain bere nebagaz, Durangoko familia bisitatzera



► JONE GUENETXEA

Durangoko Bateginez gobernu kanpoko erakundeak 1994an umeak babesean hartzeko proiektua jarri zuen martxan Pochutan (Guatemala). Maria Cristina Cujcuj Portuguezek ekimen horri esker goi mailako ikasketak burutu ditu, eta hiriburuan dihardu lanean. Bederatzi neba-arrebako familia bateko kide izanda, gazteagoek ikasten jarraitzeko dirua bidaltzen du etxera. Durangoko amabitxiak beragaz egin duen moduan, berak ere familiako gazteei etorkizun hobe bat ematen lagundu gura die. Durangora bidaiatu du egunotan, amabitxi horren familia eta herria ezagutzera.

Zelan hartu zaitu Durangoko familiak?

Oso polita izan da dena. Nire neba Luissegaz egin dut Guatemalik honako bidaia. Madrilgo aireportura etorri zitzaigun bila nire amabitxia. Asteburu-pasa Nafarroara eraman nau; jatetxeetara ere bai, hemengo gastronomia ezagutzeko... Leku asko bisitatu ditugu. Mendira ere joan gara, eta asko gustatu zaigu inguru hau guztia.

Zer hartu-eman duzu Durangoko amabitxiagaz?

Hiru urte nituenean sartu nintzen babesean hartzeko proiektu honetan. Gabonetan gutun bat idazten nion nire amabitxiari, eta Bateginez eta APSADEC elkarteek bitartekaritza egin zuten bere gutunak niri eta programako gainerako umeei heltzeko. Hemengo familiaren argazkiak bidaltzen zizkidan. Orain dela gutxi, nire amabitxiak bidaia luze bat egin zuen, eta Guatemalatik pasatu zen. Pochutan nigatik galdetu zuen, baina une hartan hiriburuan nenbilen lanean. Aurrez aurre elkar ezagutzeko aukera izan genuen. Bateginez elkarteagaz ere etorri zen beranduago bisitan. Durangora etortzeko esan zidan, inguru hau ezagutzera, eta horrela sortu zen bidaiatzeko aukera.

Zertan datza ikasleak babesean hartzeko proiektua?

Osasunean eta hezkuntzan oinarritzen den proiektua da. Lehen Hezkuntza doan den arren, oinetakoak, uniformeak eta eskolako materiala erosteko laguntza eskaintzen dute. Gainera, janaria banatzen dute, eta

urtean behin mediku azterketa bat egiten dute. Bigarren hezkuntzan, matrikula eta hileroko kuotak ordaintzeaz gainera, eskolako materiala eta uniformeak ordaintzen dituzte. Gainera, Lanbide Heziketa egiten dugunoi, kanpora ikastera bagoaz, ikasketak eta ostatua ordaintzen dizkigute, tope batera arte.

“

Pochuta inguruan Guatemala osoko eskolatze tasarik baxuena dugu

Irakaskuntza publikoak zelan funtzionatzen du?

Pochutan Guatemalako eskolatze tasarik baxuena dugu. Lehen Hezkuntza doan den arren, eskola materiala eta uniformeak erostea garestia da baliabiderik ez duten familientzat. Programa honi esker, 200 gaztek baino gehiagok Lehen Hezkuntza amaitu dute. 2000. urtean biga-

rren hezkuntzako bekak ematen hasi ziren. Horretaz gainera, 47 gazte graduatu gara, 28 emakume eta hemeretzi gizon.

Zertan diharduzu orain?

Idazkaritza exekutiboa ikasi nuen, eta orain hiriburuan lan egiten dut, Pochutatik ordubetera. Bederatzi neba-arreba gara, eta ahal dudana bidaltzen dut etxera gazteagoek ikasketekin jarraitu dezaten. Luis, nire neba, nigaz bizi da hiriburuan.

Bateginez eta APSADEC elkarteek zelako lana egiten dute Pochutan?

APSADEC bertako elkarte bat da, eta Bateginezegaz batera hainbat proiektu ditu martxan. Etxe soziala izan da lorpen handienetako bat. Programa hauek bultzatzeko bulegoa, farmazia eta klinika txiki bat ditugu bertan, eta elkarteak profesionalek ere bertan dihardute.

Potxutan zein ogibide nagusitzen da?

Hiriaren inguruan hainbat lursail daude, eta lan iturri nagusia kafea da. Lursailetan lana egon badago, baina soldata oso baxuak dituzte. Gutako askok

“

Idazkaritza exekutiboa ikasi nuen, eta orain hiriburuan egiten dut lan

Bateginezen programaren bidez egin dugu aurrera. Lursailetan irakasleak egon beharko lirateke, bertako umei eskolak emateko; dauden irakasleek ez dute formakuntza handirik izaten, eta hezkuntza kalitatea ez da ona izaten.

Zein da emakumeen egoera Pochutan?

Genero indarkeria arazo larria da. Matxismo handia dago, eta gizonezkoei lehentasuna ematen zaie arlo guztietan. Emakumeenganako diskriminazio handia dugu. Bestetik, biztanleria oso gaztea da, eta neska askok abortatu egiten dute, haurdun gelditzen badira; batzuetan baldintza txarretan, gainera. Era berean, GIB arazo larria daukagu Pochutan.



2012ko jaialdia. Argazkia: Peio Agirre.

Durangaldeko 20 talderen eskutik, kanta ezagunen bertsioak Greatest Hits Gauean

Durangaldeko hamar talde ariko dira Plateruenean, gaur, eta beste hamar datorren barikuan

> ITSASO ESTEBAN

Gaur eta maiatzaren 30ean hartuko du Durangoko Plateruenean hirugarren Greatest Hits Gauea, 21:30ean hasita. Bi-

garren ediziotik bi urte igaro dira, eta, hasieratik jaialdiaren produkzio lanetan diharduen Kimetz Zenitagoiaren berbetan, helburu berberak man-

tentzen ditu: “Durangaldeko musika taldeen arteko harremana sendotzea, eta eskualdeko publikoari taldeak ezagutaraztea”. Oso ezagunak diren

kanten bertsioen jaia aukera ederra da hori lortzeko.

Hogei talde ariko dira aurtengo jaialdian; hamar gaur, eta hamar maiatzaren 30ean. Talde

bakoitza ordu erdiz ariko da, bost orduko zuzeneko musika emanaldietan.

Kojon Prieto y Los Huajalotes, 90eko hamarkadako taldearen berpizkundearen testigu izango dira, esaterako, maiatzaren 30ean Plateruenera doazenak. Ene Bada, Martxoak 31 edo Seiurte taldeetan ibilitako Durangaldeko hamaika lagun elkartu dira *naparmex* bertsioak egiteko. “Oso dibertigarriak izaten ari dira entseguak: zerbait dibertigarria eginda, berriro agertoki batera igotzeko aukera ederra”, dio Eneritz Gorritxategi musikariak.

Denetariko taldeek eskaintako askotariko doinuak izango dira entzungai jaialdian: Parabellum, Nirvana, Kiss, The Cramberries, EH Sukarra, El Corazón del Sapo edo Skunk Anansie-ren kantak, esaterako. Baina Plateruenean izango diren sorpresen aurrerapena baino ez da aipaturikoa.

Boluntarioek dihardute jaialdiaren antolakuntzan, eta Durangoko Udalaren diru-laguntza jaso dute aurtan. Horrela eskaini ahal izan dute sarrera hiru euroko prezioan.



B.E.K.

80ko hamarkadako punka, jaia hasteko

Mañariko eta Durangoko musikarien B.E.K. taldeak zabalduko du jaialdia gaur

Mañariko eta Durangoko B.E.K. punk hirukoteak zabalduko du, gaur, Greatest Hits jaialdia. 80ko hamarkadako Bartzelonako Código Neurótico taldearen bertsioak joko ditu B.E.K. (Beti Etxetik Kanpo) taldeak. Betidanik entzun duten gustuko musika delako, eurak bezala hiru musikarik osatzen zutelako, eta “antzeko soinua” daukatelako aukeratu dute Código Neurótico.

B.E.K. taldeak ez zuen duela bi urteko GHG jaialdian parte hartu. Entzuleen artean egon ziren duela bi urte, taldea osatu

berria zelako. “Oso ondo egon zen duela bi urteko jaialdia”, azpimarratu du Mikel Astobiza taldekideak. “Lagunen kontzertua ikustera joan ginen, eta gustuko taldeen bertsioak entzuteko aukera izan genuen II. GHGn; eta aurtan ere guretzat oso mitikoak izan diren taldeak entzungo ditugu: La Polla eta Parabellum, adibidez.”

Disko bi grabatu ditu B.E.K. hirukoteak bere ibilbidean –Silicosos taldeagaz azkena–. Lokalean kanta berriak sortzen dabilta orain taldeko 23 eta 28 urte arteko musikariak.

Eskoziako Biffy Clyro taldearen bertsioak

11 Ikusteko Jaioak-ekoek gogotsu hartu dute jaialdian parte hartzeko aukera

Byfii Clyro eskoziarren bertsioak eskainiko dituzte 11 Ikusteko Jaioak taldekoek III. GHG jaialdian. “Egiten dutena gustuko dugulako aukeratu dugu, baina lehendik euren abestiren bat landuta dugulako ere bai”, dio Erik Del Arco. Musikazaleei euren gomendioa egin gura diete, hemen oso ezaguna ez den talde horren kantak jota.

Taldea lehenengo aldiz ariko da Greatest Hits jaialdian. “Asko eskertzen dira estilo honetako jaialdiak; izan ere, azkenaldian nahi baino kontzertu gutxiago ateratu zaigu, eta oso

motibagarria da gure bezalako taldeentzat”.

Hilbete taldean ibilitakoak dira 11 Ikusteko Jaioak taldeko kide gehienak: 24 eta 34 urte arteko Abadiñoko eta Durangoko musikari bina dira taldekideak. 2012. urteko udazkenean elkartu ziren, eta duela gutxi kaleratu dute taldearen izena daraman lehenengo diskoa: grabatu, nahastu eta editatu, dena egin dute taldeki-deek eurek. Rock eta metal doinuak sortzen dituzte: distortsio iluneko kanta indartsuak dira Durangaldeko laukotearenak.



11 Ikusteko Jaioak.



Doctor's Klub.

“Denon gustuko kantak joko ditugu”

La Polla Records-en kantak joko dituzte Doctor's Klub taldeko musikariak

Bigarren edizioan hartu zuten parte Doctor's Klub taldekoek, lehenengoz, Greatest Hits Gauean. Flaming Sideburns taldearen bertsioak jo zituzten orduan: rock eskandinabiarra. Arabarra aukeratu dute, aldiz, III. ediziorako, La Pollarena.

Aurreko edizioan ikusi zuten oso ezagunak diren kantekin gozatzen zutela gehien entzuleek, eta, Iraultza Unzueta taldekidearen berbetan, Doctor's Klub taldean egiten duten musikarekin zerikusi handirik ez duen arren, “denon gustukoak diren

eta jende guztiak ezagutzen dituen kantak” joko dituzte oraingoan: “Denok disfrutatuko ditugunak”. Errepertorio oso zabala dauka La Polla Recordsek, eta ez zaie erraza egin emanaldiko kanten zerrenda osatzea.

Hainbat taldekide Durangaldetik kanpo bizi dira, eta geldialdian dago Doctor's Klub. Greatest Hits Gauea “berriro elkartzeko, eta La Pollaren kantak jotzeko aukera polita” da eurentzat. “Giro ederra egoten da, eta beste musikariekin harremana egiteko aukera da”.

> PROGRAMAZIOA

Maiatzaren 30ean hasiko den XVII. Euskal Astea aurkeztu dute

Durangoko 21 elkartetako eta udaleko ordezkariak egin dute aurkezpena

> ITSASO ESTEBAN

Euskal kulturaren aniztasuna modu zabalean eskainiko duen egitarau bateratua prestatu dute urte osoan euskal kultura

bultzatzen lan egiten duten Durangoko 21 elkartetako eta udalak. Kirol zein kultura arloko askotariko ekintzak jasotzen dituen egitaraua osatu dute: musika,



Durangoko Udaleko udalbatzar aretoan elkartu ziren eragileak.

esku pilota, antzerkia, zinema, eta euskal dantzak, adibidez.

Aurreko edizioetan harrera ona izan duten hainbat hitzordu jasotzen ditu egitarauak: esku pilota eskolako umeen txapelketak emango dio egitarauari hasiera, esaterako. Gainera, ez dira faltako ohiturazko bilaka-

Besteak beste, musikak, esku pilotak, antzerkiak eta zinemak osatuko dute egitarua

turiko Txoritxo Alai eta Tronperri dantza taldeen euskal dantzen emanaldiak eta Peter esku pilota jaialdiko partiduak.

Bestalde, ekainaren 8an, San Agustin kulturgunean izango da musikazaleen Euskal Asteko hitzorduetako bat: Silboberri Txistu Elkarteak antolatzen duen Durango Hiria lehiaketa-kol lan sarituen kontzertua.

Hainbat ekintza antolatu dituzte Durangoko ikastetxeek ere, datozen egunetarako: 800 lanetik gora jaso dituzte, adibidez, Durangaldeko Artisten Elkarteak antolaturiko eskolarteko pintura lehiaketan. Antzerki emanaldiak, baserriko jolasak, herri-kirolak eta film emanaldiak ere egingo dituzte, Euskal Astean, ikastetxeetan. Gazteei zuzendurikoa da Julene Azpeitia literatur lehiaketa ere, eta Euskal Astean egingo dute sari banaketa ekitaldia. Ekainaren 1ean, San Agustinen.

GEURE DURANGALDEA

JOSUNE ARANGUREN

Kultur teknikaria



Kulturartekotasuna

Populazio fluxuek eta teknologia berrien bidezko trukeek kontzeptu berriak ekarri dituzte kultur aniztasuna ulertu, azaldu eta kudeatzeko asmotan. Kulturartekotasuna, esaterako. Munduko arroz desberdinen dastatzea, munduko dantzen erakustaldia... gehiago ulertzen dira *bestea* exotiko hartzetik, kulturen uztarketarenzko pausotzat baino.

Herri batean kultura bat baino gehiago egotea, eta horiek bata bestearekin topatzea herrien egoera naturala da. Kulturartekotasuna utopia da, onenean elkarriketa onartzen duena, baina beti liskarren aurrean itsu agertzen dena. Transkultural hitzak, aldiz, onartzen ditu bestearen aurrean onarpena zein ukazioa bide zilegitzat.

Prest gaude kategoria berriak pentsatzeko onarpen eta ukazioetan oinarri hartuta? Ala "integra daitezela" idazten dugu eskuinaz, ezkerrez exogenoa jaten dugun bitartean? Liskar horretan gizarte honen lorpen batzuk lagaezinak dira: atzerapausorik ez emakumeen esku-bideetan, esaterako. Baina hortik aurrera, elkarrekin eraiki behar den kultura berri bat izango da kulturartekotasun hori. Bestela ez da. Bestela, kultur aniztasuna izango da.

Euskal kultura ikuspuntu anitz, ireki eta asketik behar dugu hartu. Gainontzeko kulturetatik desberdin egiten gaituenari eutsiz, beste ekarpen batzuk integrazteko gaitasuna badu, egungo gizartearen beharrei aurre egiteko prest egongo da, eta etorkizuna edukiko du.

<http://josunearanguren.blogspot.com.es/>

> KRONIKA DURANGALDEKO BERTSOLARI TXAPELKETA

Gorka Lazkano herrian profeta

> JON ANDER URKIAGA EGIDAZU

359,5 punturekin Gorka Lazkano Arrizubieta da 2014ko Durangaldeko bertsolari txapelduna. 75 lagun inguru batu ziren Berrizko Kultur Etxean, igande arratsaldean, eta Aitor Bizkarra Ruizek (349), Gari-koitx Sarriugarte Onaindiak (215), Ander Gerrikaetxebarria San Antonek (210), Beñat Romero Maguregik (208) eta Ander Salaberria Alberdik (206,5) osatu zuten seikotea.

Hasierako agurrean, esaerari aurka eginda, "ia gaurkoan izaten naizen / nire herrian profeta" abestu zuen Lazkano, eta bigarren sailkatuari 10,5 puntuko aldea aterata, bete egin zuen profezia. Bakarkako lanetan ikusi nuen ondoen berriztarra; beteranotasunak ematen duen tenpletik. Uste dut horrek eman ziola txapela.

Sei bertsolarietatik solteen Bizkarra aritu zen; galtzeko gutxi daukanaren lasaitasunak txapelaren bidean jarri zuen.

Kartzelakoan jo zuen goia. Honela zioen gaiak: "Ez zendula salduko zin egin zenduan arren, saldu egin dozu". Lehen bertsotan "arima lehendik salduka neukan / eta oraintxe gorputza" botata, alabek goserik pasa ez dezaten, edozer egiteko prest dagoen amaren paperetik kantatu zuen. Bigarren bertsotan, etxera garaiz helduko dela adierazi zien alabei: "helduko naz, zuek tenplau / gaba hontako azken kotxiek / etxera ekarten banau".

Saioari umorea, oster, Sarriugartek jarri zion, saio txukun bat eginda. 8ko handian hasi, eta, printzipioz, serioarako aukera baino eskaintzen ez zuen bakarkako azken punturaino eragin zituen irriak publikoaren artean. Operazio gelan dagoen zirujaua zen zaldibartarra, eta bisturia eskuan hartu orduko ohartu da bere eskuen dardaraz. Zera bota zuen urduritasunez gainezka zegoen medikuak: "Berak bizi-

rik urtengo dau ta / niri bihotzekoak emon".

Gerrikaetxebarria, berriz, ideiez fresko igo zen oholtzara. Lehen Eskualdekoa eta lehen finala. Eta 18 urte. Horrekin ez dago dena esanda, baina asko bai. Romero, aldiz, lotuta aritu zen, saioa amaitu ondoren, berak aitortu bezala. Eta unean unekoak balio duen arren, Zornotzan jokaturako kanporaketako maila bikainetik gertuago dagoen bertsolaria delakoan



Finalean kantatu zuen bertsolari seikotea.

GLU GLU producciones
La última oportunidad
 Maiatzaren 24an - 20:00etan
 San Agustin KULTUR GUNEA
 DURANGO UDALA

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia
www.plateruena.net

3. GREATEST HITS GAUA
 MUSIKA KONZERTUA
 MAIATZAK 23 - 22:00etan 3eura

DEK BARO
 MAIATZAK 24 - 14:30etik aurrera
 BERBARO 25. URTEURRENA
 Bazkaria, ekitaldia eta DJ Bull
 EGUN OSOKO OSPA KIZUNA

DF BERTSOZALE ESKOLA
 ELKARRIZKETA
 IMANOL LAZKANO (Miren Amurizak elkarrizketatuko du)
 Eguneko menua astelehenetik larunbatera
 Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

Hemen agertu gura badozu deitu!

946 217 902

AUTOEN GEHIGARRIA



ZERGATIK UKO EGIN CITROËN ESPERIENTZIARI?

ZURE IBILGAILUA AZTERTZEKO 12 ARRAZOI DITUZU

MARKA GUZTITARAKO BALIOZKOA

ETA DEN-DENA DOHAINIK.

DOAKO AZTERKETA OINARRIZKO 12 SEGURTASUN OSAGAIETAN:

EGOERA:

1. PNEUMATIKOAK
2. IHES-HODIAN ETA FINKAPENETAN
3. HAIZETAKO-GARBIGAILUAK
4. TRANSMISIO HAUSPOA
5. DIREKZIO-HAUSPOA

LIKIDO MAILEN

EGIAZTAPENA:

6. DIREKZIOA
7. BALAZTAK EDO LHM EDO LDS
8. HOZGARRIA
9. MOTORRAREN OLIU-MAILA

ESTANKOTASUNA:

10. MOTELGAILUA
11. MOTORRA
12. ABIADURA-KAXA

GAINERA,

%30 EKO
DESKONTUA

+

BATERIAREN DIAGNOSTIKOA DOHAINIK:

BATERIAREN EGOERAREN EGIAZTAPENA, KARGA ETA ABIO-MOTORRA.

+

%10 EKO
DESKONTUAREKIN ESKULANEAN

BALAZTA-PASTILLAK,
BALAZTA-DISKOAK,
MOTELGAILUAK,
IHES-HODIA, BATERIA,
HAIZETAKO-GARBIGAILUAK.

Deskontua ordezeko piezetarako baino ez da (eskulana ez dago barne).



CRÉATIVE TECHNOLOGIE

2014/04/10tik 2014/06/30ra

TABIRA AUTOMOCIÓN, S.A.
CITROËN ETXEKO ZERBITZU OFIZIALA

Padureta 1 industrialdea - 48215 IURRETA

tel.: 946 811 108 tabira@tabira.redcitroen.com <http://redoficial.citroen.es/iurreta>

Aitor Balier | Iurreta, 1967 | Solozabal autoeskolako irakaslea

“Lehenengo egunean denak etortzen dira urduri”

Elorriko Solozabal autoeskolako irakaslea da Aitor Balier; hogeitaz dabil gustuko lanean

Zelan hasi zinen autoeskolako irakasle?

Hogei urtean nabil lanean. Aitak autoeskola zeukan; titulua atera eta beragaz beharrean hasi nintzen. Lehenengo, aitagaz, eta, gero, Solozabalegatz, gelditu barik hogei urtean.

Gustuko duzu lan hau?

Bai. Derrigorra da. Gustatzen ez bazaizu, ez duzu ondo egiten, heziketa lan bat delako. Gainera, betegarria da. Ideiarik ere ez duen ikasle bat hartzen duzu, eta ikusten duzu zelan hazten den. Makina dominatzen du, zirkulazioan hasten da, eta azken batean azterketa gainditzen du. Baina azken hori gauza burokratiko bat da niretzat. Ordurako lana eginda dago.

Denetarikoa ikasleak edukiko dituzu, ezta?

Onak, txarrak eta txarragoak daude. Bakoitzak gaitasun batzuk dauzka. 60 urteko bat etortzen bazaizu, zer eskatuko diozu bada? Astiro, gauzak desberdin esan behar zaizkio, banan-banan... Zure lana ikaslearen arabera egokitu behar duzu. Hobetzen joan ahala, gero eta gehiago eskatzen diogu; hori da gure lana. Hori bai, muga batez; bestela trabatu egiten dira.

Askori gertatu izan zaie, gidabaimena ateratzen hasi, eta denbora batera uztea?

Arlo teorikoan gertatzen da. Norberak landu behar du: eskolak hartu, testak egin... Hor jendeak urteetan ere uzten du.

Baina kotxeagaz hasten direnean ez, eskuetan ikusten dute eta. Hori ez dut orain arte eza-gutu izan; baina sasoi hauetan bai, diru faltagatik. Batzuek aurrekontu bat egiten dute eskola batzuk emateko. Aurrekontua labur geratu, eta eten bat egin behar izaten dute.

“

Bere burua gauzak egiteko kapaz dela ikusi behar du ikasleak

Ikasle bakoitzak izaera eta jarrerara desberdina dauka?

Bakoitzaren izaera igartzen da. Lehenengo egunean, denak etortzen dira urduri: nora joan, hemendik zelan atera autoa... Batzuk, beharbada, kilometro batzuk eginda datoz, baina denekin berdin hasten naiz. Berdin zait Fernando Alonso etortzen bada ere. Zergatik? Ezagutu egin gura dudalako. Zer dakien, zer ez dakien, eta zelakoa den.

Zer kostatzen zaie gehien?

Nire irakasteko erak hiru fase dauzka. Lehena, makina dominatzea da. Bigarrena, zirkulazioan sartzea, batez ere, bidegurutzetan. Eta, azkena, azterketarako perfektionatzea. Gehien bigarren fasea kostatzen



Aitor Balier, Solozabal autoeskolako irakaslea.

da, batez ere, beldurra dutenen kasuan. Batzuek fobia dute; nire izeko batek, adibidez, baimena atera, eta orain ez du gidatzen.

Eta zelan gainditu beldur hori?

Era bakarra dago. Bere burua gauzak egiteko kapaz dela ikusi behar du ikasleak. Beldurra horrela gainditzen dugu. Gidabaimena aterako du, baina bere burua edonora joateko kapaz ikusten ez badu, beldurra beti egongo da.

Ikasleen azterketetan zuk ere sufritzen duzu?

Asteko egun txarra izaten da niretzat. Tripa estututa edukitzen dut, ni ere aztertzerako noialako. Hau ez du egin, stopa ez

du ikusi... Hogei urtean, hori da nire asteko egunik txarrena.

Trafikoaren arloan, semaforoak kentzea eta biribilguneak ipintzea da tendentzia. Gidatzea erraztu ala zaildu egiten du horrek?

Gidatzea asko errazten du, eta trafikoa arindu ere bai. Biribilgunea nahiko zabala bada, lau auto sartu ahal dira aldi berean. Ideia oso ona da. Gertatzen dena da ez ditugula ondo erabiltzen. Herrikan kanpo eskumako erreietik ibili behar duzu, autopistan lez. Ezkerrekoa hartu zenezake azkeneko irteeretarako, baina kanpora zoazenean, eskumako erreietik baten bat badator, ezin zara irten.

Azpeitian egiten duzue azterketa praktikoa, ezta?

Bai. Abantaila handia da. Herri txiki bat da; ez dago autopistarik, ez daude lau erre... Adibidez, gaitzagoa da Durangon ibiltzea. Baimena lortzeko azken fasea errazten du. Baina nik ikasleak Bilbora ere errotan ditut praktiketan. Ikasleak kapaz izan behar du Max Centerrera joateko.

Gidabaimena euskaraz atera ahal da zuekin.

Gertatzen dena da gero azterketa gaztelaniaz izaten dela. Baina bai, ikasleak badaki, beti euskaraz. Gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez ere bai. Teorikoa ere euskaraz ematen dugu.



• **TEORIKOA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK**
Atera ezazu teorikoa 5 egunetan, %99k gainditzen du.

• **CAP ikastaroak profesionalentzat**
• **Teoriko orokorra euskaraz ONLINE**

HEMEN GAUDE:

Urarka kalea, 20 • Tel.: 946 583 441 • ELORRIO



Sei box edo lanerako gune dauzkate Mallabierna industriaguneko egoitzan.

Gero eta erabiltzaile gehiago ditu Repara Tu Vehículo tailerraren mekanika kontzeptu berriak

Autoaren mantentze eta konponketa lanak norberak egiteko lekua eta baliabideak eskaintzen ditu Iurretako Repara Tu Vehículo tailerrak

Orain artean ezagutu ditugun tailer mekanikarekin alderatuta, bestelakoa da Iurretako Repara Tu Vehículo tailerraren tankerako zentroek eskaintzen duten aukera. Mekanikariaren eskulanaren orde, norberak bere lanak egiteko tokia eta baliabideak eskaintzen ditu enpresa honek. Sei box edo gu-

ne dauzkate tailerrean, auto baten mekanika lanak egiteko behar diren lanabes guztiekin hornituta, eta horiek alokatzen dizkiete, bezeroek euren eskuarekin egin ditzaten autoaren mekanika arineko lanak. Lanerako leku aproposa ez ezik, produktu eta pieza mekanikoak merkatuko batez bestekoa baino

merkeagoak diren prezioetan eskaintzen ditu Repara Tu Vehículo. Gainera, bi-hiru mekanikari egoten dira tailerran beharrean, aholkuak emateko eta laguntzeko. Gaizka Muguerza enpresaren salmenta zuzendariak dioenez, “olio aldaketa egitea ez da zaila, berez, baina, batez ere hasierako beldurrak

kentzeko, errazagoa da profesional bat alboan badaukazu, eta laguntzen badizu”. Muguerzak azaldu duenez, Iurretako zentroko erabiltzaileetako askok zaletasuntzat dute mekanika, eta jende horri “tailer garbi eta argitsu” bat eskaintzea dute helburu: “Ez da lan erraza tailer mekaniko bat garbi izatea, baina horretan saiatzen gara”.

Autozalea den Durangaldeko jendeak gustuko lantxoak egiteko leku aproposa du Repara Tu Vehículo, eta zaletasuna partekatze gunea ere bada: “Gure mekanikarien aholkularitzagaz, etxeko tratuagaz oso gustura jarduten da jendea lanean”. Mekanika gustuko duen gazte horretaz gainera, beste

profil batzuetako erabiltzaileak ere baditu tailerrak: aurrezte helburu duena, esaterako. Izan ere, ordu erdika alokatzen dituzte tailerreko lantokiak: 19,80 euroan alokatu daiteke box horietako bat ordu erdiz. Ohiko tailer baten prezioaren erdian eskaintzen ditu Repara Tu Vehículo bere zerbitzuak. Egoera ekonomikoak behartuta, autoaren konponketetan aurreztu gura duen jendeari honako mezu hau helarazi gura dio Repara Tu Vehículo: “Beste mekanika bat posible da”.

Mekanika arina

Mekanika arinekoak izaten dira tailer honetan egiten dituzten lan gehienak: olio eta freno aldaketak, eta gurpilen mantentze lanak, esaterako. “Ez gatoz inori bere merkatua kentzera, baizik eta mekanika arineko gauzak egin gura dituen merkatuko esparru horri eskaintza egitera”, dio Muguerza arduradunak.

Bezeroek gero eta gehiago eskatzen dituzten bestelako lanak ere eskaintzea izango dutela etorkizuneko apustua azaldu du Gaizka Muguerzak. Azken urteetan, Espainiako hainbat txokotan zabaldu dute Repara Tu Vehículo marka: sei zentro dauzkate zabalik. Tailer mekaniko gehienetan bezala, maiztzean, ekainean eta uztailen hartzen dute jende gehien tailer honetan ere. “Badirudi eguraldi onak erakartzen duela jendea bertara: egunik lanpetuenetan 38 auto hartzen ditugu”.



Aholku-emaile aritzen dira mekanikariak.

2.009. urtean zabaldu zuten Iurretako tailerra

2009. urte amaieran zabaldu zuten Repara Tu Vehículo tailerraren Iurretako egoitza.

Aitzindaria izan da EAEn zein Espainian ere: proiektu pilotu bezala zabaldu zuten, hasiera



batean. Mekanika tradizionalaren kontzeptutik beste herrialde batzuetan askoz zabalduago zegoen kontzeptu batera salto egitea zuten helburu bultzatzaileak.

Datuek erakusten dute, gutxinaka bada ere, jendearen ohiturak aldatzen doazela. Gaur egun, biztanlearen %5 inguruk eramaten du autoa Repara Tu Vehículo bezalako lekuetara; Ingalaterran edo Frantzia, aldiz, %10ak baino gehiagok. Horrela dio Gaizka Muguerza salmenta zuzendariak: “Bere garaian altzarien merkatuagaz gertatu zenaren antzeko zerbait gertatzen ari dela esango nuke: eta gutxinaka bagoaz gure lekua egiten”.

Bestelako mekanika posible da

Konpondu zure autoa zuk zeuk
Gure minutu doan eta olio promozioekin
www.reparatuvehiculo.es

PROMOZIOAK

OLIOA+OLIO FILTROA EROSIZ
15 MINUTU DOAN BOXEAN

AURREKO+ATZEKO FRENOAK EROSIZ
FRENO GARBITZAILEA DOAN

OLIOA+OLIO ETA ERREGAI FILTROA EROSIZ
30 MINUTU DOAN BOXEAN

***Total**
23,75€

***Castrol**
36,25€

***Repsol**
45,85€

* Ekainaren 30era arte

N-634 errep. Durango-Bilbao 82km. • UEI-3 ind. 5 behea - 48215 Iurreta • Tel./Fax: 946 817 914

“Hamarkada oso bat hamar egun izan balira bezala joan zaigu”

Orain hamar urte auto lasterketetan hasi zirenetik, beti elkarrekin aritu dira Fernández pilotua eta Peña kopilotua

Hamar urtek askorako ematen du, baina Iban Tarsicio Fernandezek eta Iñigo Peña onartu dute konturatu barik joan zaizkiela. Tartean, podiumak (joan zen asteburuan bigarren izan ziren Zor-notzako ralliesprintean), garaipenak eta hamaika abentura bizi izan dituzte. Ibilbideko unerik mikatzena iaz izan zuten. Rallysprint Txapelketa eskura zutela, Eibarko proban pareta jo, eta autoari kalteak eragin zizkioten: “Agur lasterketari eta agur txapelketari”, gogoratu du Tarsiciok.

Rallysprint Txapelketa Mitsubishi EVO IX bategaz lehiatzen ari zarete. Serieko auto bategaz alderatuta, zertan da desberdina zuena?

I.T.: Alde handia dago. Gureak esekidura eta balazta hobeak ditu, eta abiadura-kaxa ere berezia da. Motorra du seriekoaren nahiko antzekoa.

I.P.: Elektronika ere oso diferentea da. Abiadura-kaxa eta elektronika dira lasterketa auto bateko atalik inportanteenak. Lasterketetan horrek egiten du aldea. Euria egiten badu, edo errepidean hartxintzarra badago, autoak hobeto erantzuten du, eta hori lasterketetan egiten ditugun denboretan igarri egiten da.

Autoari aldaketarik egiteko modurik bazenute, zer aldatuko zenioke?

I.T.: Pisua kenduko nioke. Pisu larregi du, hori da autoak duen gauzarik txarrena. Gu barruan bagoaz, ia 1.600 kilo ditu. 300 bat kilo kentzea posible balitz, autoa bonba bat izango litzateke, baina ez da posible. Diru asko gastatu eta dena zuntzezkoa ipinita, 80 bat kilo kentzeko aukera egongo litzateke. Baina inbertsioa eskatzen du, eta ez dakigu inbertsio horri zelako errendagarritasuna aterako geniokeen.

Orain arte, zenbat auto izan dituzue?

I.T.: Hiru izan ditugu gure ibibidean. Hasieran, Seat Ibiza bategaz hiru bat urte eman genituen. Ondorengo bost urteak Ford Escort Cosworth batekin igaro ge-

nituen, eta azken bi-hiru urteetan Mitsubishi bishi bat darabilgu.

Denak berdin estimatzen dituzue ala badago kuttuna den bat?

I.T.: Ford Escortari estimu berezia diogu. Seat Ibiza lehenengoa izan zen, eta estimatzen genuen, baina ezin izan genuen postu onik lortu beragaz. Ford Escortagaz, aldiz, lasterketa onak egin genituen; garaipenik ez, baina podiumak lortu genituen. Oso garai polita izan zen.

Iban, autoekiko zaletasuna gaztetatik datorkizu?

I.T.: Txikia nintzenean, aita auto lasterketetan ibiltzen zen, eta desegite fabrika bat zuen Atxondon. 15 bat urte nituela, aitagaz hasi nintzen lanean, harik eta Hirumeten hasteko utzi nuen arte. Beraz, gaztetatik ezagutu dut automobilismoaren mundua.

Iñigo, zuri noiztik datorkizu zaletasuna?

I.P.: Niri autoak betidanik gustatu izan zaizkit, eta lasterketak ikustea ere bai. Baina mundu honetan Ibanekin murgildu nintzen. Hirumeten lankideak ginela, autoa prestatzen-eta laguntzeko eskatu zidan, eta, ondoren, kopilotu izateko. Horrela hasi nintzen.

Autoa eta kopilotua; biak ala biak ondo zaindu beharreko osagaiak dira pilotu batentzat.

I.T.: Nire ustez, kopilotua autoa baino inportanteagoa da. Kopilotuagaz ez badago hartu-eman onik eta konfiantzarik, ez dago zereginik. Oso astiro joango gineteke.

Iban, zelan definituko zenuke Iñigo kopilotu postuan dagoenean?

I.T.: Oso kopilotu eta lagun ona da.

Iñigo, zelan definituko zenuke Iban pilotu gisa?

I.P.: Oso pilotu ona. Segurua da. Ahalik eta denbora onena egiten saiatzen da beti, baina, ahal dela, marjina txiki bat utzita;



Iñigo Peña eta Iban Tarsicio Fernández Abadiñoako Traña-Matienan, Eroski ondoko pabiloietan duten lokalean.

arazorik edo kolperik izan ez dezagun, eta erregularitasuna mantentzeko.

“Abiadura-kaxa eta elektronika dira lasterketa auto bateko atalik inportanteenak”

Kolpe batek txapelketa oso bat hondatu dezake. Zuek ondo dakizue hori.

I.P.: Iaz, ia denboraldi osoan Rallysprint Txapelketako lider ibili ginen, eta lasterketa biren faltan, Eibarko ralliesprintean kolpe handi bat hartu genuen. Gure ibilbideko lehenengo kolpe handia. Txapelketa hortxe amaitu zen guretzat. Azkenean hirugarren geratu ginen.

Zelan gogoratzen duzue Eibarko lasterketa hori? Non izan zenuten istripua?

I.T.: Txapelketan lider gindoazen, baina lasterketa gutxi irabazita. Eibarren irabazteko grina geneukan, gainera ibilbidea ondo ezagutzen nuen.

I.P.: Bizkaiko Balkoia Rallya irabazi berri genuen, eta oso motibatuta geunden Eibarko ralliesprintean.

I.T.: “Gaur irabazi egingo dugu”, esan nion Iñigori. Autoen egiaztapenak egiten diren tokitik irteera puntura gurpilak on-

“Podiumak egiten, eta probak irabazten hasi ginen Ford Escortagaz; garai polita izan zen”

SPORT DURANGO, S.L.

TAILERRA - MEKANIKA - TXAPA - PINTURA - ERAKUSKETA

Fabrikako **7** URTEKO BERMEA *
modelo guztietan

cee'd BERRIA

SPORTAGE

OPTIMA

ZERBITZU OFIZIALA: **KIA**

Murueta z/g (Hiper Eroski aurrean) Matiena - Abadiño - Tel.: 946 203 392 - 946 817 644



Tarsicio eta Peña Mitsubishi EVO IX autoagaz lehia.



Iban Tarsicio Fernández eta Iñigo Peña garaipen bat ospatzen.

do berotzeko astia zegoen. Dena perfektu zegoela ematen zuen. Apur bat astokilo baten moduan irten nintzen, eta lehenengo kilometroan, bihurtu luze batera lar arin sartu, eta pareta baten kontra jo genuen. Guk ez genuen minik hartu, baina autoak bai. Agur esan genien aurretik geratzen ziren lasterketa bie, eta agur txapelketari. Disgustu itzela izan zen, negar eta guzti egin genuen.

Aurten zelan zabiltzate Rallysprint Txapelketan?

I.T.: Bigarren gaude sailkapen orokorrean. Ondo gabiltza, baina hamar urtean kolpe serio bakarra izan badugu, hurrengo hamar urteetan ez dugu gehiagorik nahi. Kolpeek gastu handia eragiten dute, eta sarritan gertatzen badira, babesleak nekatu egiten dira. Erregularitasuna oso inportantea da; goian ibili eta autoa erakutsi behar dugu. Beharbada, aurten horregatik ez gabiltza hain aurrean lasterketetan. Hein handi batean

“Iaz Eibarko lasterketan gertatu zena disgustu handia izan zen; negar eta guzti egin genuen”

“Hamar urtean kolpe serio bakarra izan dugu, eta ez dugu besterik nahi beste hamar urtean”

erregularitasunagatik gaude bigarren sailkapenean.

Pilotu batentzat erronkarik handiena finantziarioa batzea izaten da?

I.T.: Ez gure kasuan. Zortea izan dugu. Hirumeten lanean nenbilela, nire asmoa auto zahar batekin lurreko lasterketak lehiatzen hasia zen. Nagusiari laguntza eskatu nion, eta ideia gustatu zitzaion, baina lurreko lasterketak Errioxa inguruan dira, eta gehiago interesatzen zitzaizkion Euskal Herriko probak. Beraz, Seat Ibiza bat erosi, eta horrela hasi ginen. Eskerrak eman gura dizkiegu Hirumeteko Ramon eta Ignacio Madariagari, hamarkada honetan laguntzeagatik. Eurak barik gu ez ginateke hemen egongo.

Iruditzen zait kopilotuak erantzukizun itzela duela mugan dabilen autoan.

I.T.: Kriston erantzukizuna du.

I.P.: Kopilotuaren lana da pilotuari segurtasuna ematea aurretik datorrenaren in-

guruan. Pilotuak bihurtuena imajinatu egin dezake, eta kopilotuak segurtasuna eman behar dio. Ezin du hutsik egin.

I.T.: Kopilotuak huts egiten badu, gauza bi gertatu daitezke: zoro baten moduan bazoaz, kolpe itzela hartzea, edo hutsaz konturatu bazara, balaztari eragin eta moteltzea. Edozein kasutan denbora asko galtzen da.

Aurten hamarkada bete da lasterketen munduan murgildu zinetenetik. Atzera begira ipinita zer sentipen datorkizue?

I.T.: Ez dugu sinesten hamar urte joan direnik auto lasterketetan hasi ginenetik. Hamarkada oso bat hamar egun izango balira bezala joan zaigu.

Beste hamar urtez jarraitzeko prest zaudete?

I.P./I.T.: Bai, bai.

I.T.: Minik hartu barik jarraitzen badugu, eta babesleak laguntzen badigute, gu aurrera jarraitzeko prest.



ARRIBIDE



Ind. Ariandi P.1
48215 IURRETA
-Bizkaia-

Tel.: 94 681 83 81

AMAYA

AUTOEN KONPONKETAK S.L.



UAI, 1 INDUSTRIAGUNEA
(Orozketaren errepidea)
48215 Iurreta / Bizkaia
126 Posta Kutxa Durango
Tel.: 946 812 123 / Faxa: 946 203 818

e-maila: oficina@amayaautoreparaciones.com
www.amayaautoreparaciones.com



PIVE 5 planeko funtsak
agortzen ari dira
2.000€

Lehenbailehen
erreserba ezazu



FORD C MAX EcoBoost motorrarekin.

13.990€

www.fordkondia.com



ford.es

FORD KONDIA

Otaola etorb. EIBAR

Tel.: 943 207 650

ZIORLA AUTOAK

Santamaña kalea, 19 IURRETA

Tel.: 944 815 135

BERRIA



FORD KA

➤ **Auto-Start-Stop sistemarekin**

Osagarri ezin hobe bat edukitzeko aukera paregabea.

Edonora eraman nahiko duzu, zure erritmora egokitzen den bakarra delako.

Aprobetxatu, eta eraman ezazu Auto-Start-Stop sistemarekin, aire girotuarekin eta MP3arekin.

5.990€



Oraindik ere ibilgailu erabili bat al duzu buruan?

Umeek autoan segurtasunez bidaiatzeko neurriak zorroztu dituzte

1,35 metrotik beherakoek ezin dute aurreko eserlekuan eseri, atzekoak libre badaude

Umeek autoan bidaiatzen dutenean zein segurtasun sistema ezarri izaten da gurasoen zalan-tza handienetako bat. Gainera, bide segurtasunaren inguruan azken hilabeteetan egindako aldaketek zalantzak sorrarazi dizkiete hainbat aitari eta amari. Legea garatzeko araudi bat osatzen dabilta orain. Lege aldaketak zehazten duenez, 1,35 metro baino txikiagoak diren umeek ezingo dute aurreko eserleketan bidaiatu. Kasu honetan umearen pisuan baino, altueran oinarritzen dira.

Hala ere, salbuespena aurrei-kusten du legeak atzeko eserlekuak okupatuta dauden kasue-tarako eta atzeko eserlekurik ez duten kotxeentzako. Kasu horietan aurrean joan ahalko litzateke dagokion segurtasun aulkiarekin. Orain arte, 12 urte-tik beherakoek aurreko eserlekuan bidaiatu zezaketen beraien aulkian. Arau hau hautsiz gero, dagokion segurtasun indarrak autoa ibilgetu dezake eta 200 eu-roko isuna jarri diezaioke.

Taxiei dagokienez, arau bera aplikatuko da, baina arau-haus-tearen erantzukizuna adin txiki-koaren tutore legalarena izango da, ez taxi-gidariarena.

Atzeko eserlekuei dagokie-nez, segurtasun-uhala jartzea nahitaezkoa da edozein kasutan. Umeen kasuan, 10 kilora arte, segurtasun-saski-aulkian era-man behar dira, atzera begira. Umea autoan doanean bere eserlekuan martxaren kontra ahalik eta denbora gehien eramatea gomendatzen da, samako giha-rrak ondo garatu arte, behintzat. Aulkitxoa aukeratzeko, pisua eta umearen tamaina hartu behar da kontuan, eta ez horrenbeste bere adina.

9-18 kilo artekoak aurrera begira joan daitezke segurtasun aulkia arnesagaz. 22-26 kilora bitartean, jasogailu-eserlekua eta segurtasun-uhala eraman beharko dituzte.

Segurtasun aulki bakoitzak zein taldeakoa den markatzen du bere etiketan. 0-IV taldeeta-koak izan daitezke. Bertan mar-katzen du zein pisu eta adineta-rako erabili daitezkeen.

Europako araudia

Aulkitxoek homologazio etike-tan Europako Batasuneko arau-dia jarraitu behar dute: R44/04 da gaur egun indarrean dagoena. R44/01 eta R44/02 galarazita dau-de, eta R44/03 oraindik onartu



Aulkitxoek homologazio etiketan Europako Batasuneko araudia jarraitu behar dute.

egiten da. Zergatik da hain gar-rantzitsua Europako Batasune-ko etiketa jartzea? Krisi garaian bigarren eskuko aulkien erabil-pena handitu da, eta R44/01 eta R42/02 badira berrerabiliak, kal-tedun istripua izanez gero, ase-guru etxeek ez lukete bere gain erantzukizunik hartuko, ustez aulkitxo horiek ez direlako segu-ruak eta galarazita daudelako. Beraz, garrantzitsua da aulkia

erosterakoan etiketak eta arau-diak ondo begiratuta aukeratzea.

Lege berria

Maiatzaren 9an indarrean jarri zen trafiko eta bide-segurtasu-naren lege berriak beste hainbat aldaketa ere aurreikusi ditu. Bizikleta gidarien kasuan, 16 urtetik beherakoek kaskoa era-man beharko dute beti. 16 urte-tik gorakoek, berriz, hiriarteko

bideetan erabili beharko dute nahitaez.

Era berean, radar detektagai-luak erabiltzearen, 200 euroko isuna aurreikusten du legeak, eta gidabaimeneko hiru puntu erretiratzea.

Radarrak desaktibatze-ko apa-railuak ere debekatzen ditu. Abisua ematen dutenak, berriz, onartzen ditu. Radarren datu-ba-sea duten zerrendak dira.

Gauza batzuek hobeto funtzionatzen dute elkarrekin. Adibidez, zure Audiak eta gure aditu talde profesionalak. Izan ere, inork ez du Audi Audik bezain ondo ezagutzen.

Gizakia ulertzeko gaia denak soilik uler dezake zer nahi duen

Golf R berria 300 ZP inprobisatzeko

ALLUITZ MOTOR, S.L.

Alluitz, z/g 48200 DURANGO/Bizkaia Tel.946 202 004 Faxe: 946 200 998

EROSKI gasolinera

Eroski Abadiño-ko

Bakarrik 365 egunatan 24 orduak zabalik

via xpress-ean

ORDAINKETA AUTOMATIKOA

%2ko DESKONTUA

Hornitzailea aukeratu, txartelarekin ordaindu, eta %2ko deskontua lortuko duzu hornitzaile hau aukeratzeagatik

Grupo **CATALANA OCCIDENTE**

RUEDA BILBAO ASEGURUAK

Jabier Rueda

Agirre Lehendakari kalea, 8 - 48200 Durango
 Tel.: 94 620 27 10 - Faxe: 94 681 65 77
 e-maila: jrueda@segurosbilbao.com



RENAULT OCASIÓN

ZER EZ ZENUKE EMANGO HORRELAKE AUTO BATENGATIK

**ZAIN GAUZKAZU RENAULT GAURSAN.
200 IBILGAILU BAINO GEHIAGO STOCK-EAN.**



**RENAULT CLIO
EXPRESSION BERRIA**
TCe 90 ZP Urtea: 2013
Bermea: 2016ra arte
9.600€

**RENAULT MÉGANE
EXPRESSION**
1.5 dCi 105 ZP Diesel
Urtea: 2010
8.800€

**RENAULT MÉGANE
DYNAMIQUE**
1.2 TCe 115 ZP Gasolina
Urtea: 2013
11.900€

**RENAULT MÉGANE
EXPRESSION**
ST 1.5 dCi 110 ZP Diesel
Urtea: 2013
13.500€

**RENAULT SCÉNIC
EXPRESSION**
1.5 dCi 110 ZP
Urtea: 2013
14.900€

**RENAULT SCÉNIC
EXPRESSION**
1.5 dCi 110 ZP
Urtea: 2012
12.800€

**RENAULT GRAND
SCÉNIC EXPRESSION**
1.5 dCi 110 ZP
Urtea: 2013
15.500€

**RENAULT GRAND
SCÉNIC DYNAMIQUE**
1.6 dCi 130 ZP
Urtea: 2013
17.800€

**RENAULT LAGUNA
DYNAMIQUE**
1.5 dCi 110 ZP
Urtea: 2012
15.900€

**RENAULT LAGUNA
GT 4 CONTROL**
2.0 dCi 149 ZP
Urtea: 2013
20.900€

RENAULT TRAFIC
2.0 dCi 115 ZP
Urtea: 2012
12.500€

**PREZIOA
EKIPAMENDUA
BERMEA
HAINBAT AUKERA**

RENAULT OCASIÓN

GAURSA

ARRIANDI, 12. TEL. 94 620 33 00. IURRETA / GRAN VIA, 65. TEL. 94 441 74 50. BILBO www.gaursaautoak.com

BILBO BERRI

JON ARROSPIDE, 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTU www.bilboberri.com

Eskaintzak 14/05/31n bukatuko dira, edo izakinak agortzen direnean (4 Renault Clio Expression berri, Renault Mégane Expression 105ZP bat, Renault Mégane Dynamique bat, 5 Renault Mégane Expression 110ZP, 2 Renault Scénic Expression (2013. urtekoa), Renault Scénic Expression (2012. urtekoa) bat, Renault Grand Scénic Expression bat, 2 Renault Grand Scénic Dynamique, Renault Laguna Dynamique bat, 2 Renault Laguna GT 4 control eta Renault Trafic bat), Renault Gaurisa, RCI Banque Sucursal en España-rekin gutxienez 4.000€ finantzatuta 24 hilabete baino gutxiagoko bigarren eskuko ibilgailuentzako deskontu-promozioaren bidez. Gutxienezko epea 24 hilabete. RECSA eta Gaurisa eskaintzako deskontua. Ez da bateragarria beste finantza-eskaintza batzuekin. Kontsultatu baldintzak kontzesionarioan. Irudiko modeloa: Clio Dynamique Energy TCe S&S berria, 17"-ko haguak, pintura metalizatu berezia eta pertsonalizatzeko 1. mailako paketea.

Renault gomendatzen du **elf**



> ARGAZKIGINTZA

“Amaren buruan gertatzen ari zena interpretatzeko saiakera dira irudiak”

Ekainaren 10etik 29ra Durangon ospatuko den BegiraPhoto jaialdira etorriko da Rous Boisier (Temuco, Txile, 1985) argazkilaria. ‘Pérdida’ lana ekarriko du beragaz, Durangora.

Begira jaialdian atzerriko par-taide bakarra zara. Zer derit-zu jaialdiaren programazioari? Txilen zein atzerrian gure herrialdeko sorkuntza artistikoa bultzatu eta ezagutaraztea hel-buru duen beka bat eman zidan Consejo Nacional de la Cultura y las Artesek. Diru-laguntza horri esker etorriko naiz Begira jaial-dian parte hartzera. Erakusketa



‘Pérdida’ erakusketako irudi bat.

ipiniko dut, baina, gainera, ber-baldi batean ere parte hartuko dut Goiuri Aldekoa-Otalora ber-tako argazkilariagaz. Jaialdia-ren programazioa askotarikoa eta osoa da, eta euskal sortzaile gazte asko batuko ditu, gehienak emakumezkoak. Belaunaldi ber-riek lekua egitea oso inportan-tea dela uste dut. Bestalde, argaz-kilaritza kalera ateratzea herri-tar guztiak argazkigintzara ger-turatzeko bidea da: museoen eta galerien lau hormetatik kanpo egile argazkigintzaz gozatzeko.

Zer ideiaren ingurukoak dira ‘Pérdida’ bildumako argazkiak? Lan oso intimoa da. Nire ama gaixo zegoenean, bera zaintzen nengoela egindako argazkiak di-ra. Bere buruan gertatzen ari ze-na interpretatzeko saiakera da. Asko landu nuen argazkietako atmosfera bere barne munduari buruzko nire gogoetak ahalik eta hoberen transmititzeko. Objek-tuen bitartez egindako narrazioa da; objektuek familiaren etxeko espazio intimoetan duten presen-tziak iradokitzen duenaren eta familia albumeko amaren argaz-kietan oinarritutakoa.

Sorkuntza prozesua gogorra egin zitzaizun?

Urte eta erdiko prozesua izan zen. Hasierako argazkietako dis-kurtsoa zakarra, oso agerikoa eta mingarria zen. Suposatzen dut hori zela momentu hartan sentitzen nuena. Bilatzen, araka-tzen jarraitu nuen, eta amaren galera kontatzeko beste era bat topatu nuen. Ulertu nuen mina beti egongo dela hor. Zelanbait, onarpen eta heltze prozesu bat izan zen, eta egoera ulertzen eta gobernatzen ikasi nuen. Horrela joan zen argazki lana ere heltzen, gaur egun denera ailegatu arte.

Erakusteko asmoagaz egin ze-nituen argazkiak?

Prozesu intimo hori argazkie-tan jaso nuen, horrela egin behar nuela sentitu nuelako. Begira jaialdiak eman dit lan hau lehe-nengoz jendaurrean erakusteko aukera. Museoetan edo galerie-tan erakustez gainera, nire lana zabaltzeko bestelako baliabideak erabiltzea interesatzen zait, lana-ren eta ikusten duenaren arteko harremana ahalik eta intimoena izateko; eta *Pérdida* proiektuak lortzen du hori.



Goiuri Aldekoa-Otaloragaz berbaldia eskainiko du Boisierrek, Durangon.

Leo Simoes Begira jaialdiko zu-zendariagaz kolaboratu izan duzu Txilen, ezta?

Bai, 2013an Txilen egon zenean ezagutu nuen Leo Simoes. Urte-betean, nire herrialdeko hainbat lekutan gidatu zuen *Acerca de la mirada* argazkigintzako ikasta-roan parte hartu nuen. Gero, *Madre tierra* argazkigintza proiektu

tua garatzeko Temucon sei hila-betez geratzeko pentsatu zuen, eta ni bizi naizen La Araucanía es-kualdeko herri indigenari buruz-koa da lan hori, maputxeei bu-ruzkoa. Argazkigintzako proiektu horren osagarri narratiboa izango den *Somos* film labur do-kumentalean elkarrekin gabil-tza lanean ordutik hona.

> ERAKUSKETA

Artista gazteen askotariko lanak: ‘Político-poético’

Ekainera arte, Durangon izango da bilduma ikusgai



Euren lanak erakusten dituzten lau artistak aurkeztu zuten erakusketa.

“Arte sorkuntza oro poetikoa eta politikoa delako ustea” da eki-men kolektibo honen abiapun-tua. Artistek eurek autogestio-

naturikoa da erakusketa, eta No-ra Aurrekoetxea & Laura Ruiz, Ibon Azpiroz, Lehior Bilbao, Urtzi Canto, Andere E. Zubiaur,

Amaia Molinet, Lúa Ordás eta David Pavoren artelanak, eta Alberto Díez eta Beñat Romera-ren testuak biltzen ditu. Bideo sorkuntza, argazkigintza, eskul-tura eta literatura uztartzen ditu *Político-poético* proiektuak, eta ekainaren 1era arte egongo da Arte eta Historia Museoan ikus-gai. 2012an eta 2013an beste artis-ta batzuen lanekin osatu zuten *Político-poético*, eta Gasteizen, Donostian, Bilbon eta Getxon erakutsi zuten, esaterako.

Amaia Molinet, David Pavo, Andere E. Zubiaur eta Ibon Az-pirozek aurkeztu zuten joan zen astean erakusketa, eta azpima-rratu zuten “artista bakoitzak bere izaera indibidualetik eta askatasun osoz” sorturiko lanak direla bildumakoak: “artista eta bere lana” eta “elkarrekin zer-bait eraikitzea” dutela oinarri.

> MUSIKA

Elorrioko musika eskolako ikasleen kontzertua, bihar

Bost urtetik gorako ikasleek joko dute emanaldian

Zapatuan, maiatzaren 24an, 18:30ean hasita, Arriola antzo-kian eskainiko dute Elorrioko Garamenditar Agustin Musika Eskolako ikasleek udaberriko musika emanaldia. 5 urtetik aurrerako musika eskolako ikasleek parte hartuko dute zu-zeneko emanaldi horretan; 5 eta 7 urte artekoek ipuin musikatu bat antzeztuko dute, eta taldean eskainiko dituzte nagusiagoek emanaldiak. Errepertorio za-bala, askotarikoa prestatu dute Elorrioko Arriolako emanaldi horretarako: euskal musikarien

kantak eta hainbat kanta klasi-ko ere joko dituzte.

Matrikulatzeko aukera

Astelehen honetan hasi da Elo-rrioko musika eskolan izena emateko epea, eta ekainaren 6ra arte egongo da aukera: eguene-tan 15:00etatik 16:00etara, eta barikuetan 17:30etatik 19:30era. Lau urtetik gorako edozeinen-tzat eskaintzen dituzte ikaske-tak: musika hizkuntza, askota-riko instrumentuak eta taldean aritzeko gaitasunak lantzen dituzte, esaterako.







ARIZMENDI IKASTOLAREN

LANBIDE HEZIKETA ZURE LANERAKO BIDEA

ERAIKUNTZAKO PROIEKTUAK • GORPUTZ ETA KIROL EKINTZEN ANIMAZIOA

ERIZAINZAREN LAGUNTZA OSAGARRIAK

IZEN EMATE EPEA

MAIATZAREN 27Tik EKAINAREN 6RA

943 77 20 25 // WWW.ARIZMENDIPRO.EU

arizmendi
ikastola **PRO**

Uda honetan PLATERUEN PLATERAK

• Bariku eta zapatu iluntzeetan •
ekainetik aurrera



Razioak
Entsaladak
Etxeko pizzak
Kazolatxoak
Postreak



PLATERUENA

Kirola

Zigor Iturrieta | Zornotza, 1974 | Mendi korrikalaria |



Arineketan urte asko daro-
daz, eta lehen asfaltoan sufritu
egiten nuen sufritzen. Men-
diak beste zerbaite ematen dizu,
eta beti topatzen duzu zerbaite
berria. Begiratu zelako kalea,
horrelako batean ardiak irteten
zaizkizu... Menorcan kurio-
soa zen zaldientzat zeukaten itxi-
tura sistema. Zaldi gaintetik han-
kagaz bultza egin eta zabaldu
ahal duzu, eta gero bere pisua-
gaz ixten da. 170 ate baino gehia-
go zabaldu nituen, eta buruan
geratu zait ate bakoitzak ixtean
egiten zuen zarata. Bizi guztira-
ko markatuta geratu zait.

“
*Menorcan 30
aldiz pentsatu
nuen erretiratzea;
jaustean, logura
sentitzean...*
”

**Menorcan paisaia ederra edu-
ki zenuten.**

Gauetz ilargia eduki genuen guri
begira, lekuko isila. Itsasertzeko
kaletatik pasatu, ilargi bete-be-
tea itsasoan islatzen ikusi... Go-
gorra izan zen, baina gozamena
ere bai. Zelako lekuak! Handik
pasatu, eta esaten nuen: bihar,
egunez etorri behar dut hona!
Horrek erakartzen nau, eta atze-
tik lasterketa osoa oinez egin
zuena ere horrek erakartzen
duela suposatzen dut. Beraz, az-
kenean, gozatzea da helburua,
baina beste erritmo batean.

Zer asmo duzu aurrera begira?
Aste bi barru Leitzan (Nafarroa)
ospatuko den Euskal Herriko
Mendi Erronka egiteko asmoa
daukat. Gero, ekainaren 26an,
Chamonixera (Frantzia) joan
gura dut; Munduko Txapelke-
taren antzeko proba berri bat
antolatu dute. Eta abuztu amaie-
ran Montblancera (Frantzia-
Italia) joango naiz. Ea behingoz
buelta ematen diodan, lau urte-
tan joan naizelako, eta itzuli ori-
ginala ez dudalako sekula egin;
eguraldi txarragatik laburtu
egin izan dute. Arineketan asko
egitekoa da, eta niri teknikoak
gehiago gustatzen zaizkit.

Eta zer helburu daukazu?
Errealista naiz, badakit zein den
nire lekua. Lehenengo hama-
rren artean amaitzeko Satur-
nok eta Orionek lerratuta egon
behar dute, ondo lo egin, ondo
entrenatu eta hori guztia. Ahal
bada, lehenengo hamarren ar-
tean sartu nahi dut Munduko
Txapelketan, eta Mont-Blancen
nahikoa izango da amaitzeagaz.

“Menorcan irabazteak indar handia eman dit”

Bi urtez garaipenik lortu barik egon ostean, joan zen asteburuan Camí de Cavalls mendi lasterketa irabazi zuen Menorcan Zigor Iturrietak

> MARKEL ONAINDIA

Lesio batetik irten berri, bola-
da onean eta ilusioagaz dabil
Zigor Iturrieta mendi korrika-
laria. Joan zen asteburuan Me-
norcako Camí de Cavalls proba
irabazi zuen, marka ordu bitan
hobetuta. 21 ordu eta 10 minu-
tuan egin zuen 185 kilometro-
ko ultratraila. Urte bi eman du
lasterketarik irabazi barik, eta,
sentsazio onak lagun, erron-
ka berriak dauzka datozen hi-
labeteetarako. Euban jaiotako
mutilak Durango du bizileku.
Goizeko 02:00etan jaikitzen
da sukaldari beharra egiteko,
eta mendi lasterketarako en-
treatzen ere makina bat ordu
sartzen ditu. Nekatuta, baina
pozik agertu da elkarrizketara.

Lehenengo eta behin, zorio-
nak. Pozik egongo zara, ezta?
Egia esan, bai, urte bi daroada-
zelako lasterketarik irabazi ba-
rik. Nahiz eta entrenatzen ondo
ibili, emaitzak ez ziren etortzen.
Egunero-egunero entrenatzen
joan eta gero ez baduzu emai-
tzarik lortzen, gogor egiten da.
Gainera, aurtun indartsu hasi

nintzen denboraldia presta-
tzen, baina urtarrilean belauna
apurtu nuen, bigarren gradu-
ko bihurritu bat egin nuen. Hilabe-
te bi erdi geldirik egon naiz, bizi-
kletan ibili naiz bakarrik. Orain
dela aste bi Portugalen egon nin-
tzen, eta hiru etapatik bi irabazi
nituen. Orain Menorcan irabaz-
teak indar handia eman dit.

Zelako lasterketa izan zen?
Zalantza askogaz joan nintzen,
sekula ez dudalako 130 kilome-
tro baino gehiago egin, eta Me-
norcan 185 ziren. Berez, Eus-
kal Herriko probek baino des-
nibel positibo gutxiago dauka,
2.800 metro. Baina dena zen gora
eta behera. 95. kilometroan jau-
si egin nintzen eta kolpe bat har-
tu nuen. 100.ean hornidura gune
batean lurrean botata egon nin-
tzen ordu erdiz, erdi zorabiatuta
eta segitzeko zalantzekin. Gero,
gaua oso txarto pasatu nuen. As-
te bitartean 02:00etan esnatzen
naiz, eta aste horretan lau-bost
ordu lo eginda joan nintzen. Sa-
sitzara birritan jausi nintzen,
eta hiru gunetan lo egiten geratu
behar izan nuen. Bigarrena non

zetorren galdetzen nuen, eta 45
minutura bazetorren, ordu er-
dira iratzartzeko eskatzen nien.
Azkeneko 40 kilometroetan gus-
tura ibili nintzen.

**Gaua izango da fase gogorre-
netakoa, ezta?**

5. kilometrotik aurrera baka-
rrik joan nintzen, eta gogorra
egin zitzaidan. Bi joanda beti
errazagoa da gauez, ez despista-
tzeko, motibatzen joateko, mar-
kak ikusteko... Menorcakoa
GR bat da, eta ez dago markatu-
ta zintekin lasterketa normale-
tan lez. GRko markak jarraitu
behar dira: 2.200 zutoin dira.

“
*Indartsu hasi
nintzen denboraldia
prestatzen, baina
urtarrilean belauna
apurtu nuen”*
”

**Motibazioak eta buruaren kon-
trolak eragin handia daukate?**

Bai. Burua da dena. 60. kilome-
troan guztiak goaz izorratuta,
eta hortik aurrera norbere bu-
ruak zer egiten duen da kontua.
Normalean, badaezpada, MP3
entzungailu bat eroaten dut;
egia esan, birritan bakarrik era-
bili dut. Menorcan txarto joan
nintzen, eta musika ipini nuen.
Kantatzen hasi, eta burua beste
gauza batean hasten da pen-
tsatzen. Abesti motibagarriak
ipintzen ditut, eta asko lagun-
tzen du. Kirol batzuetan uste dut
debekatuta dagoela: triatloian,
adibidez. Kanpoko laguntza lez
hartzen dute. Hemen ez. Hori
bai, batenATEGAZ banoa, sekula
ez dut muskarik ipintzen. Ho-
rrelako lasterketetan badakizu
momentu oso onak eta txarrak
edukiko dituzula, eta gestiona-
tzen jakin behar duzu.

**Hainbeste ordutan edozer pa-
sako zaizu burutik.**

Mila ideia pasatzen zaizkizu
burutik. Menorcan 30 aldiz pen-
tsatu nuen erretiratu egin behar
nuela; jaustean, logura senti-
tzean... Alabak ere esan zidan
saria ekartzeko, eta gero azaldu
ieziaiozu erretiratu egin zarela
[barrez]. Egia esan, buruagaz
borroka handia dago.

**Zer sentsazio edukitzen duzu
mendian korrika zabiltzanean?**
Niretzat sufrirituta gozatzea da.

> **SASKIBALOA**

Tabirakoko gizonen igoera fasea jokatu dute asteburuan, Arrasaten

Emakumeen talde nagusiak hirugarren amaitu du Salamancan jokatu den igoera fasea; asteburu honetan gizonen txanda izango da Arrasaten



Tabirako Baqué gizonen talde nagusia osatzen duten jokalariek eta entrenatzaileak. Tabirako.

> **JOSEBA DERTEANO**

Denboraldi osoko lanaren uzta jasotzen ari da egunotan Tabirako Baqué. Emakumeek igoera fasea jokatu dute Salamancan (Espainia); ez dira igo, baina igo balira adinako meritua du liga irabazita sailkatu izanak. Aste-buru honetan gizonen txanda

izango da; Nazional Mailako lau talderik onenak batuko dira Arrasaten (Gipuzkoa), eta, tartean, Tabirako.

Zapatuan, 17:00etan jokatu dute Tabirakok eta Mondragon Unibertsitateak lehen finalerdia. Bigarren finalista Azpeitia-Azkoitia eta Deusto-Loiola-

ren artetik irtengo da; 19:00etan hasiko da partidua. Irabazleek domekan, 12:00etan, jokatu dute finala. Mondragon da igo-tzeko faborito nagusia. Tabirakok irabazi egin zion denboraldi aurreko Baque Torneoan, baina harrezkero izandako neurketak galdu egin ditu. Mikel Larraña-

ga jokalaria ustez, ondo jokatu gero, irabazi dezaketen partidua da. Mondragonek kanpoaldetik jokalaria trebeak ditu, eta horiek estu lotu beharko dituzte. Bestetik, barrualdean Tabirakok joko sendoagoa du, eta horri etekina ateratzen saiatuko dira.

> **Emakumeak ezin igo**

Emakumeek ezin izan dute Emakumeen 2. ligarako igoera lortu. Azkenean, etxeko taldea igo da, azken urteetan hainbat igoera fase jokatu dituen Universidad Salamanca. Tabirakok Salamanca eta Donostia Basket taldeen kontrako partiduak galdu, eta Galiziako Lourenzaren aurkakoa irabazi zuen. Klubeko ordezkariak adierazi dute harro sentitzen direla taldeko jokalariekin eta entrenatzaileekin.

> **Gazteak ere goi mailan**

Tabirako gazteen taldeak Bizkaiko lau talderik onenen arteko finala jokatu du Zornotzan. Unamuno faboritoaren eta Leio- ren kontra galdu, eta Loiola- ren aurka irabazi egin zuen. Azkenean, hirugarren amaitu zuen. Iskander de Dios entrena- tzaileak jokalariek denboraldi osoan izandako jarrera goraipatu du: "Entrenatzaile lege izan dudan denboraldi onenetakoa izan da aurtengoa".

> **ADITUAREN TXOKOA**> **Oihana Azkorbebeitia**

EHko mendi lasterketen taldeko hautatzailea

> **Kirioak dantzan**> **eta odola bor-bor**

Maiatzaren 25ari begira, mendi lasterkariok kirioak dantzan ditugu, odola bor-bor irakiten jartzen digun mendi lasterketa jokatu baita egun horretan: Zegama-Aizkorri maratoia. Badira hila- bete batzuk Euskal Herriko mendi lasterketen denboral- dia hasi zela, eta lasterketa asko korritu badira ere, domeka honetan dugu benetako hitzordua. Korrikalari askok eta askok domeka honi begira egin dute prestaketa urte hasieratik. Facebooken zein beste sare sozial askotan pil- pilean dagoen gaia da; zein korrikalari datorren, ea irabazleak denbora jango dion iazko markari, euskaldunen artean zein izango den azka- rrena (mutil zein nesketan)...

Ni ere irrikan nago egun handirako, jakina. Iaz kale egin nuen, haurdun egon nintzelako, baina, aurten, lasterketa honek sortzen duen zirrara sentitzeko ilusio osoz nago berriro. Eta aurtengo ilusioa berezia da. Ez naiz ez sailkapenari, ez markari begira egongo. Domekan nire motibazioa beste bat izango da. Gozatzera irtengo naiz. Alluitz semearen eta familia- ren beroa sentitzearekin ni konforme.

Hala ere, beti dago nork animatu, zalez josita egoten baitira Otzaurte, Aratz, Sancti Spiritu, Aizkorri, Urbia, Andraitza eta Zegama bera, besteak beste. Zaleek eurek ere kirioak dantzan izango dituzte eta odola borborka, ziur nago.

> **ARETO FUTBOLA**

Areto-futbolean 400 ume ariko dira Mallabian

Datozen zapatu bietan 400 gazte- txo eta 40 talde areto-futbolean ariko dira Mallabia Cup Torneoan. Torneoa benjaminurreko, benjamin eta kimu mailetan jokatu dute. Bihar benjamin mailako 16 talde lehiatuko dira egun osoan luzatuko den jardunaldian. Maiatzaren 31n benjaminurrekoen eta kimuen txanda izango da. Bestalde, ekainaren 6tik 8ra nagusien areto- futbol torneo antolatuko dute; izen-ematea 70 eurokoa da, eta irabazleak 600 euro jasoko ditu. Izen-emateko telefono honetara deitu behar da: 669 028 718.

> **ORIENTAZIOA**

Orientazio raidean bigarren Urizar eta Azkorbebeitia

Joan zen asteburuan Getxon hasi zen Euskal Herriko Orientazio Raid Ligan bigarren amaitu zuten Mikel Azkorbebeitia iurretarrak eta Iker Urizar elorriarrak. Lehenengoz ari dira elkarrekin lehiatzen, eta espero ez zuten emaitza dela adierazi du Azkorbebeitiak. Hurrengo proba Lizarran izango da. Orientazio probetan mapa bati jarraituta herrigunean zein mendian dauden balizak aurkitu behar dituzte parte-hartzaileek, korrika edo bizikletan mugituta. Tartean askotariko probak izaten dituzte: arku tiroa eta piraguak, kasu.

> **AUTO LASTERKETA**

Kepa Amantegi junior mailako onena izan da

Espainiako Erresistentzia Kopa- ko lehen lasterketan podiumera igo zela lortu du Kepa Amantegi 16 urteko pilotu durangarrak. Junior mailan onena izan da Montmellon (Katalunia) eta sail- kapen orokorrean 41. amaitu du Renault Clio baten bolantean. Debuteko lasterketa espero baino "oso pozik" dagoela adierazi du Amantegik, helburua apurka ofizioa ikastea zelako. Eta emaitza horrek ez dizkio helburuak aldatu: ekainaren 28an, Motorland (Aragoi) zirkuituan ikastea izango duelako helburu nagusi.

> **EGONALDIA**

Surfa eta ingelesa hobetzeko aukera Zarautzen

